

Hitzen ordena esaldian

VICTOR HIDALGO EIZAGIRRE

0. Sarrera¹

Bi ideia nagusi garatu nahi ditut hitzaldian.

Bat, itzultzaileei, eta oro har idazleei, zuzendutako gomendioa, aditza inoiz ez gehiegi atzeratzeko esaldian, eta hain gutxi itzulpenean, testu argiak nahi baditugu euskaraz. Zorionez, aditza esaldian aurreratzeko gomendioa nahikoa zabaldua da jada gure artean, baina 1993ra arte (Zubimendi eta Esnal) ez da inor ausartu hau inprimaturik ematen.² Areago, oraindik da arrunta euskaraz aditza esaldi atzealdean eman behar delako ustea, edota esaldi amaieran, hori balitz bezala euskal joskeraren arima. Eta ez da hala, ikusiko dugun bezala.

Bigarren ideia are heterodoxoagoa da. «Galdegai» lege berri bat proposatuko da hemen, eta esan, ezagutzen dugun *galdegai legea*, Azkue-Altubek asmatua XIX-XX. mendeen mugan, galdegai derrigorrez(-edo) aditzaren aurreko gunera daramana, *gezurra* dela lege bezala, eta honek gaitzetsitako ordenamendu aukera asko ere on askoak direla euskaraz (eta are hobek).

Eta badira proposamen hauek egiteko pisuzko arrazoiak:

1. Aditza esaldi aurrealdean ematea delako, esaldi luzeetan, hauen ulergarritasuna bideratzeko modu bakarra testuan, psikolinguistikaren ekarriek argitzen bide diguten eran.
2. Euskarazko tradizio idatziak ez du *inoiz* bete Azkue-Altuberen galdegai legea, XX. mendean legea apropos bete nahian sortutako testuak arte. Tradizio idatzi honek ez du ere aditza *inoiz* atzeratuko esaldian, salbu Kardaberaz eskolako autoreen joskeraren artifizialean (Kardaberaz, Lardizabal, Arrue, ...; ik. Hidalgo, 1993). Kurioski, tradizioko testuok ez ohi dute eragin gaur egunekoek bezalako ulergarritasun arazorik. Bi arrazoi horiexengatik ote da?

1. Artikulua oinarrian dago 2001eko azaroan Bilboko Hizkuntza Eskola Ofizialean EAEko HEOetako zenbait irakasleri emaniko hitzaldia hitzen ordenaren inguruan K. del Olmok itzulpengintzaz eskaini ikastaroaren barne.

2. 1993 aurretik ere badira nolana Azkue-Altuberen sistemaren kontrako ahots kualifikatuak (ik. bibliografian Mitxelena, Villasante eta Azurmendiren lanak), baina hauetan ez da idazketa proposamen positibo zehatzik egiten, eta ez dute arrakastarik berenganatzen XX. mende hondarrera arte, eta ezta ere orduan handirik.

3. Euskarazko aho erabilera guztia ere, oraingoa eta lehengoa –ezagutzen dugun neurrian–, aho batez da aditz aurrera zale, eta idatziak bezain gutxi errespetatzen du galdegai lege kanonikoa.
4. Azken arrazoa da' aditz atzeratzeek eta galdegai lege betetzeek erabat murrizten dutela euskararen adierazkortasuna. Nik defendatu nahi dut, esateko, *ni ELENA naiz* bezalako esaldi baten aldean (enfasia izenean), *ni naiz ELENA* ere ondo esaldi jatorra dela euskaraz ideia bertsua adierazteko, are adierazkortasun handiagokoa, [*ni naiz*] [*ELEna*] ahoskatua.³

1. Esaldien ulergarritasun arazoak aditz atzeratzeei lotuak

Begira diezaiogun egun hauetan lanerako erabili dugun segidako esaldiari:

- (1) Ljudskanov traduktologo bulgariarraren eskutik, euskal itzulpengintza ere, beste herrialdeetako itzulpen asko bezala, Jainkoaren hitza galdu edo bestelakotzeko beldurraren menpean eta hitzez hitzeko joera batean sortu zela aitortu behar dugu.

Aditz nagusia eta mendekoa esaldi luzearen amaieran ematen dira, eta horrek zaildu egiten du ulergarritasuna. Zergatik? Mezu hartzaileak ez daki amaierara iritsi arte esaldia zertaz ari den, eta aurretik ezin iragarri du zer aurkituko duen esaldiaren amaieran. Kasuan, *aitortu behar dugu* aditzak, baieztatu egiten du aurretik emana. Baina mezu hartzaileak ezin aurretik jakin zezakeen, jasotzen ari zen hura, gero baieztatuko zen, edo ukatu, zalantzan jarri, edo beste. Eta amaierako aditz hori jaso arte saiatu beharko du bere lan memoria laburrean bere hartan gordezten aurreko atal guztiak, batere ezabatu gabe. Irakurri dezagun esaldia berriro:

- (2) Ljudskanov traduktologo bulgariarraren eskutik, euskal itzulpengintza ere, beste herrialdeetako itzulpen asko bezala, Jainkoaren hitza galdu edo bestelakotzeko beldurraren menpean eta hitzez hitzeko joera batean sortu zela ukatu beharra dago.

Ukazioak hankaz gora jartzen du aurretik modu positiboan-edo jaso. Eta amaieran berdin aurki zitezkeen beste aditzok ere, esaldiaren predikazio unibertsoa zeharo aldatzen dutenak:

- aitortu behar dugu
- ez dugu sinetsi behar
- ukatu beharra dago
- ezkutatu behar dugu
- sinetsi behar al dugu?

Arazoa badirudi fisikoa dela. Gure burmuinak lan memoria laburrean nahasketa gabe gordezakeen osagai kopurua oso mugatua bide da (zazpi digitu solte esperimentuetan –7 hitz labur, 8/10 silaba–). Eta badirudi gaitasun mugatu honek baduela zerikusirik hiztunak eta irakurleak duen joerarekin esaldiak banatzeko, hain zuzen, tamaina horretsutako intonazio/informazio

3. 3. atalaren hasieran argitzen da gezi eta parentesion irakurketa.

unitateetan (IU).⁴ Ohiko intonazio unitatea, mezu emailearen eta hartzailearen kodetze eta deskodetze informazio unitate bihurtzen dena, ez da inoiz 15 silaba baino luzeagoa. Gehienak 10era iristen ez direnak, 5/8 artekoak maizenik, eta are laburragoak hizkera edo hizkuntzen arabera. Laburragoak ere bat-bateko ahozko kodean, irakurrian baino.

Lan memoria laburrak ez du arazorik halako IUak bere osotasunean gordetzeko. IUak loturarik baldin badu anarteko diskurtsoarekin, unibertso predikatibo horretan integratuko du, beste memoria mota batera iragan, eta lan memoria laburra libre utzi IU berriak jasotzeko. IUak loturarik ez badu aurrekoekin, gure memoria IUa bere osotasunean gordetzen saiatuko da ondoko IUekin (eta aditzarekin) integratu ahal izan arte unibertso predikatibo zabalagoan.⁵ Zer gertatzen da gure esaldian? Eman dezagun IU banatze posible bat (ez bakarra), hauen ondoko azpindizeetan eman ez bakoitzaren silaba kopurua:

- (3) Ljudskanov₃ // traduktologo bulgariarraren eskutik₁₄ // euskal itzulpengintza ere₉ // beste herrialdeetako₉ // itzulpen asko bezala₈ // Jainkoaren hitza galdu₈ // edo bestelakotzeko₈ // beldurraren menpean, // eta hitzez hitzeko joera batean₁₃ // sortu zela₄ // aitortu behar dugu₇.

Amaierako 7 silabako aditzera iristeko, 10 bat IU puztu irakurri behar dira, 83 silaba. Amaiera irakurri arte, irakurleak ezin ditu aurreko IUak integratu inongo predikazio unibertso orokorretan, eta ezingo ditu lan memoria laburretik atera beste memoria mota batera. Baina irakurlea, inongo hizkuntzatan ere, ez da gauza 10 IUtako informazioa bere horretan gordetzeko lan memoria laburrean. Zatiak ahaztuko ditu eta nahastuko. Eta amaierako aditza irakurri bezain agudo, berriro irakurri beharko ditu aurreko IU guztiak hauen mamiaz jabetzeko, orain, amaierako aditzak sortu predikazio unibertsoaren argitara.

Hain zuzen, horixe da euskal irakurle sufrituon esperientzia gaur eguneko testu aditz atzera zaleak irakurtzean. Ez, ordea, aurrekoak, aditz aurrera zaleak. Eta hori, ez gu euskaldun txarrak garelako, denok behin baino gehiagotan hausnartu dugun legean, edo beste hizkuntzetako irakurleak baino motzagoak. Arazo bera izanen luke zeinahi hizkuntzatan irakurleak, esaldia gurearen ordena berean irakurtzean. Hala, esateko, gaztelaniaz:

- (4) De la mano del traductólogo búlgaro Ljudskanov, también la traducción vasca, así como muchas traducciones de otros pueblos, bajo el miedo a perder o a desfigurar la palabra de Dios, y en una tendencia a la traducción palabra por palabra, **que fue creada hemos de confesar (/hemos de negar).**

4. Halliday (1967) da lehena intonazio unitate eta informazio unitateen arteko identifikazioa agerian postulatzen. Baina badira aurretik edo garai bertsuan ere beste zenbait lan psikolinguistikaren inguruan antzeko bideak jorratzen dituztenak (ik. Boomer, Dittman eta Llewellyn edota Laver-enak esateko).

5. Esaldien sortze eta ulertze (irakurtze) prozesu psikolinguistikiko/kognitiboaren inguruan ikus litezke: Clark & Clark 1977; Levelt 1989 (1995); Singer 1990; Gathercole & Baddeley 1994; Chafe 1994; Gernsbacher 1994; Clark 1996; eta berrikiago Baddeley 1999. Baita ere, Meyer 1996, edota Garrett-en lanak. Gaztelaniaz, maila batean, De Vega-Cuetos 1999. Psikologia kognitiboaren inguruan, berriz: Eysenk-Keane 1995; Sternberg 1996; Haberlandt 1997; Medin-Ross 1997. Irakurketaren ulertze eta deskodetze prozesuen inguruan: Coltheart 1987; Rayner & Pollatsek 1989; Balota (eta beste) 1990; Fayol (eta beste) 1992; edota Zagar 1992.

Bitxia gertatzen da joskera gaztelaniaz. Baina ez imajina ezina, Góngora edo Quevedoren zenbait pasarteren aldean. Ulergarritasun arazo bera erakusten dute latinez Julio Zesarren testuek, artifizialki aditz atzera zaleak, joskera naturalagoko autoreen aldean. Edo XIX. mendeko hungarierazko hainbat testuk, han ere gramatikariek zeharo artifizialki aldarrikatzen dutenean aditzak esaldi amaieran-edo joan behar duela. Alemana ere ez da arazootatik salbu mendeko esaldietan, aditza amaieran ematera behartuta, hauek batere luzeak diren orduko, edo barnean mendeko esaldi gehiago dituztenean. Beren ulergaitzasunean gaur egun barre egin ohi diete autore aditz atzera zaleenoi.

Eta izan ere, zer arazo du euskarak goiko esaldia emateko segidako edo antzeko aditz aurreratu(ago)ko ordenamendu batean, beti askoz arinagoa prozesatzen:

- (5) Ljudskanov traduktologo bulgariarraren eskutik(,) **aitortu behar dugu(,)** euskal itzulpengintza ere beste herrialdeetako itzulpen asko bezala **sortu zela** Jainkoaren hitza galdu edo bestelakotzeko beldurra ren menpean eta hitzez hitzeko joera batean.

Ulergarritasuna errazteko, egungo euskal prosak berrikasi beharra dauka aditza artifizialki ez atzeratzen, gure prosa klasikoak eta ahozkoak agindu bidetik. Nahiz horrek ez duen esan nahi euskarak eta gaztelaniak hitz hurrenkera bera garatu dutenik.

2. Ulergarritasun arazoak lotura duten osagaien arteko etenek eraginak

- (6) Udal honetako museo **batzordeari**,¹⁴ 1995ean muscoa antolatzeko, zaintzeko eta bideratzeko sortu eta ordutik orain arte diru baliabide urriz baina giza baliabide aberatsez, arazoak sortu ahala gaingitu ez ezik, arazoetatik bidet berriak urratzeko eta aurrera egiteko gaitasunez eta kemenez hornitu eta bere motako batzordeen eredu **bilakatu denari**,¹⁴¹ ondo merezitako omenaldia, hala ere, ez merezimenduen parekoa, ezina baita, **egitea**,³⁷ **erabaki dute** zingotzi guztiek aho batez.¹⁷

Halako esaldi luze baten irakurketan ulergarritasun arazoa eragiten du, noski, aditz nagusiaren atzerapen sinesgaitzak. Esaldiaren predikazio unibertsoa biribildu lezaketen **egitea erabaki dute** aditzetara iristeko, 192 silaba irakurri behar dira (20 bat IU puztu). Nola gorde hauek lan memoria laburrean aditz nagusiko unitatera iritsi arte? Euskarak, nolana, ez du arazorik esaldia aditz aurreratuko joskera ulertterazago batean emateko, segidako moduan:

- (7) Zingotzi guztiek aho batez **erabaki dute** ondo merezitako omenaldia **egitea** udal honetako museo **batzordeari** ...

11 silaba **erabaki dute** aditzeko 6en aurretik. Beste 12, mendeko esaldiko **egitea** aditz nagusiaren 4 silaben aurretik. Ondorengo informazio guztia irakurleak jaso ahala integratuko luke bi aditz horiek sortutako predikazio unibertso orokorrean.

(7) esaldiak badu, ordea, beste arazo handi bat. Dislokazio deituko diogu. Hasierako **batzordeari** osagaiaren eta honekin aposizioan lotutako **bilakatu denari** aditzaren artean, 141 silabako tarte dago (15 bat IU puztu). Bitarte guztian, irakurleak ez daki zerikusirik duten lehen

14ek ondoko 141ekin, eta hauek hasierako unitatearekin lotzeko aukera duenerako, nahastu/ahaztuak izanen ditu, berriro irakurri beharrean amaierako *bilakatu denari* aditzaren argitara. Halako dislokazioek, funtzioz edo esanahiz elkarrekin zerikusia duten osagaien artean, erabat zailtzen dute esaldien ulergarritasuna. Eta maiz eragiten dira gaur eguneko euskara estandarrean.⁶

2.1. Definizioen arazoa⁷

(8) Zer da itzulpena? Askotan, nahiz beti ez, testu baten esanahia, autoreak nahi izan duen zentzuan, beste hizkuntza batean ematea da.

Galderan itzulpenaren definizioa eskatzen da. Definizioan, ordea, ez da *itzulpena*-ren aipamenik, amaierako *da* aditzaren 3. pertsona bitarte. Ordea, mezu hartzaileak 42 silaba jaso behar izan ditu aditz horretara iristeko, 4/5 bat IU puztu, esaldia zertaz ari den jakiteko, honek ez baitaki bitarte guztian zein zentzutan ulertu behar dituen 42 silaba horiek. 43.eko *da* aditzak esaten dio definizio moduan jaso behar dituela (kasuan puntu batek ere berdintsu esango lioke). Ordurako, ordea, ez ditu jada 42 silaba horiek ongi gogoratuko, eta berrirakurri beharko ditu amaierako aditzaren argitara. Izan ere, *da* aditzaren ordeaz berdina jaso zezakeen:

(9) Zer da itzulpena? Askotan, nahiz beti ez, testu baten esanahia, autoreak nahi izan duen zentzuan, beste hizkuntza batean ematea txorakeria hutsa da.

Edota beste hauek: • estimatzen al dugu? • ezinezkoa da.
• besterik ez dugu nahi. • ez da itzultzailearen egitekoa.

Amaiera hori jaso arte ezin dira zuzen interpretatu aurreko 42 silabak, eta hauek lan memoria laburrean zuzen gordetzeko ezintasun fisikoan, derrigortuak gaude 42 silaba horiek berrirakurtzera. Arazoa saihesteko, nahikoa da, noski, aditzak aurreratzea ohiko moduetan:

(10) (Zer da itzulpena?) Askotan, nahiz beti ez, (itzulpena) da testu baten esanahia, autoreak nahi izan duen zentzuan ematea beste hizkuntza batean.

3. Intonazio unitateak (IU) izan' badira

(11) Zer da itzulpena?

6. Hala, ezezko esaldietan osagai luzeak tartekatzen direnean aditz laguntzaile eta nagusiaren artean; erlatibo kanoniko luzeak ematen direnean eten ikaragarriak eraginez hauen buruekiko (nondik izen-ardazaren eskuinetik hedaturiko erlatibo ez-kanonikoen maiztasuna ahozko eta idatzizko tradizioan -ik. Hidalgo 2002a-e-); mendeko esaldi luzeak ematen direnean aditzaz amaiturik (nondik hauek hautsita emateko joera euskal tradizioan -ik. I. eranskineko datuak-); eta, oro har, aditz nagusia batera atzeratzen den esaldi luzekoetan, aditz hau delarik maiz aurreko esaldietako unibertso predikatiboarekiko lotura elementu nagusi(etako)a.

7. Ik. besteak beste, Kaltzakorta (1997) eta España (1998).

Zenbat IU ohi ditu euskaraz halako galdera batek? Hau da, zenbat aho kolpetan eman ohi da? Arrunki, bakarrean, [*ZER da itzulpena*] itxuran, tartean inolako eten edo isilunerik gabe (hori adierazi nahi da parentesi zuzenen bidez, [/]), eta intonazio-azentuazio-predikazio gailur prosodiko bakarren pean antolatua (*ZER* galdegilea kasuan; nondik honen maiuskula txikiak). Intonazioa, hasieratik gailur horretara igoko da (*ZER* geziak adierazia), eta gailurraren ondorengo silaba/osagaietan beheranzko isats intonatiboa emango da hauen bigarren mailako predikatibotasuna adieraziz (*ZER* geziak adierazia).⁸

¿*Qué es la traducción?* galderaren itzulpen, ordea, *Zer da itzulpena?* segidaren parean, batek baino gehiagok eman du *Itzulpena zer da?* segida. Hau ere, aurrekoa bezain ona euskaraz; eta hura bezain egokia ere bai kasu gehienetan segur aski. Baina, zenbat IUtan, aho kolpetan, emango genuke bigarren galdera hau? Bakarrean? Ezetz dirudi.⁹

Halako galderan, *ITZULPENa* hitzaren ondoren, isilunerik ez eginda ere, ez ohi dira ondoko silaba/osagai guztiak eman beheranzko isats intonatiboan. *ZER* galdegileak bereganatuko du bigarren intonazio gailur bat, eta beraz, bi IUren aurrean geundeke: [*ZER da itzulpena*] [*ZER da*], lehen IUaren amaieran goiko edo goranzko intonazioa aurkituz predikazioaren jarraipena iragarritz. Bi esaldiak, beraz, euskaraz onak izan arren, ez dira berdinak. Batak IU bakarra luke eta besteak bi. Eta horrek, garrantzi handia du, intonazio unitate bakoitzak informazio unitate independente bat osatuko baitu, eta mezu hartzaileak beste unitateetatik aparte prozesatuko baitu (ik. 4. atala).¹⁰

4. IUak informazio unitate baitira, mezuak deskodetzeko garaian¹¹

Eman dezagun segidako baieztapena, 11 silabakoa (ahoskera erlaxatuan 8/9/10 bat silaba dituen), pentsatuz osagaiak testuaren aipatu gabeak direla, berriak, zentzu horretan:

(12) Lanera joango gara amarekin.

Esaldia IU bakarrean ahoskatua, nahiko unitate puztua izaki ere, seguru asko denok ados geundeke esaten aditzaren aurreko *LANERA*-k jasoko lukeela esaldiko gailur predikatiboa, eta hori adierazten, baita intonazio eta azentuazio gailur prosodikoa. Ondorengo osagaiak, aldiz, beheranzko isats prosodiko-predikatiboan emango lirateke, hauen gailentasun eza adieraziz hasie-

8. Gehienok onartuko genuke galderaren intonazio unitate bakarreko ahoskatze hau, nahiz zilegi izan litezkeen beste batzuk ere, kontrastiboak edo. Hala, bereziki *ITZULPENa zer den* galdetu nahi bada, eta ez, esateko, *IDAZKETA*, eman liteke galdera bi intonazio unitatetan: [*ZER da*] [*ZER da itzulpena*]; non, seguru asko, lehen unitatearen amaieran, goiko edo goranzko intonazioa aurkituko dugun *da*-ren amaieran, adieraziz, artean, predikazioa amaitu gabe dagoela (hori adierazi nahi izan dugu (*ZER*) gezi bikoitzen bidez).

9. Bederen, berriro kontrastiboak edo ez diren testuinguruetan, aurreko oharrean jasotako bidetik.

10. Gaztelaniaz ere antzeko gauza bat gertatuko litzateke ¿*Qué es la traducción?* IU bakarreko galderaren ordez, bi unitateko (*Pero*) *La traducción ¿qué es?* galderarekin.

11. Atal hau garatuago ematen da Hidalgo (2000a)n –Uztaro 33–.

rako osagaiaren aldean. Mezu hartzaileak ere, IUa unitate bakar bezala jasoko du, hierarkikoki ordenatutako sekuentzia bakar bezala, bere gailur eta osagai subordinatuekin, eta hala deskodetu eta ulertuko du IUa intonazioak adierazi bezala. Horrela adieraz genezake:

(13) [↗LANERA joango gara amarekin↘]_{PG}

Badirudi unitateak, bere horretan ere, baduela osotasun predikatiboa edo informatiboa. Hau da, beste inolako osagaiaren beharrik gabe ere, mezu hartzaileak osoa senti lezakeela ezeren falta gabe. Horregatik esango dugu, halako intonazio/informazio unitate batek, diskurtsoan dagoen gunean egonda, *predikazio gunea* osatzen duela (PG azpindizean adierazia).

Eman dezagun orain, unitate hori ez dela bakarra esaldian. Aldamenean duela (14a)koa bezalako beste atal nahiko puztu bat, 11 silabakoa (ahoskera erlaxatuan ere 9 bat silaba izango litzukeena), eta berau ere intonazio unitate bakarrean emana ohiko euskal eran (14b):

(14) a. Eguraldi ona egiten badu
b. [↗EGURALDI ONA egiten badu↘]¹²

Unitate hau esaldi osoaren buruan aurki genezake, nola beste unitatearen ondorenean:

(15) a. Eguraldi ona egiten badu(,) lanera joango gara amarekin.
b. Lanera joango gara amarekin(,) eguraldi ona egiten badu.

Esaldiak ez dira berdinak. Baina zertan dira desberdin? Zein da bakoitzaren informazio egitura? Ze, ikuspuntu logiko edo ontologiko batetik, esaldi biek ere, amaieran, gauza bera predikatzen dute. *Lanera joango gara amarekin eguraldi ona egiten badu*, eta hala suposatuko dugu gehienok, *eguraldi ona egiten ez badu ez gara lanera joango amarekin*.

Eta hori hala litzateke, zalantza gabe, baldin eta mezu hartzaileak esaldiaren amaierari itxarongo balio mezua deskodetzen hasteko. Badakigu, ordea, mezua jasotzen haste beretik hasten dela deskodetzea. Lehendabizi soinuak fonema bezala ulertzen (zeinuak letra bezala); hauek lotuaz silabak osatzen; silabak elkarrekin trabatuz hitzak osatzen; eta hauek lotuaz, funtzio sintagmak osatzen, esaldi edo perpausa osatu arte, eta abar.

Eta badakigu mezu hartzaileak beti darabilela prosodia, intonazioa eta batez ere aipatzen gatozen IUen arteko banaketa, esaldien informazio egitura deskodetzeko.¹³ Esan nahi da, intonazio unitate baten amaierara iristean,¹⁴ mezu hartzaileak hori seinaleztat duela, jakiteko, unitate

12. EGURALDI ONA izen sintagma osoa markatu dugu IUaren gailurrean, nahiz hau izenean joango litzatekeen soilik. Gailurra adjektiboan emateak (aukera arrunta euskaraz) seguru asko eskatuko luke IU berri bat hasia adjektiboarekin, izena aurreko IU independente batean emanez: [↗eguraldi(↗↘)] [↗ONA egiten badu↘].

13. Baita irakurtzen ari garenean ere. Frogatua baitirudi irakurtzean ere esaldiak intonatu-edo egiten ditugula garunean (zenbaitean aho mugimenduak ere eginez), eta batez ere, irakurritakoa informazio unitateka sailkatu, balizko intonazio unitate optimo (baina aipatu bezala, inoiz ez luzeegi) batzuen luzeraren arabera.

14. Eta hori beti da adierazia unitate amaierako goiko edo beheko muga tonu berezien bidez, amaierako silabaren luzatzeaz, edota beti, intonazio unitate berriaren gailur prosodiko berria markatuz.

tean jasoak informazio unitate oso eta independente bat osatzen duela, mezu emailak berak hala kodetu duena hasieratik, eta horregatik eman duena IU independente bat bezala. IU amaierarekin mezu hartzaileak bi hausnarketa egiteko parada hartuko du. Bat, jaso berri duen IUa aurreko diskurtso, egoera, unibertso predikatiboarekin lotzeko, ahal badu. Eta bi, unibertso predikatibo berri bat osatzeko, zeinetan integratu hurrengo IUak, esaldi berekoak edo berrietakoak. Horrela itxura genezake (15)eko esaldien prosodia eta informazio egitura:

- (16) a. [↗EGURALDI ONA egiten badu(↘↗)]_{PM} [↗LANERA joango gara amarekin↘]_{PG}
 b. [↗LANERA joango gara amarekin(↘↗)]_{PG} [↗EGURALDI ONA egiten badu↘]_{PG}

Galdera da zer predikatzen duten (15-16)ko esaldiek, hain zuzen, bi IUen arteko mugan? Hain zuzen, mezu hartzaileak zer mezu duen jada jaso a bi IUen arteko mugan, eta beraz zer mezu jasoko duen bigarren IUarekin?

(15-16a)ko lehen unitatea jasota (*Eguraldi ona egiten badu*), mezu hartzaileak ez du jaso baldintza bat baino. Beste testuaurrerik gabe, berez nahiko ez dena predikazio/esaldi/perpaus osoa izateko. Mezu hartzailea ezin ase senti da IU hori jasota; eta beraz, ez du *predikazio gunerik* osatuko. Halako unitateei *predikazio marko* deitu diegu (PM).¹⁵ Bigarren unitateak kontatuko dio mezu hartzaileari, hain zuzen, baldintza hori betetzen bada ZER GERTATUKO DEN. Bitartean lan memoria laburrean gordeko da lehen IUa.

(15-16b) esaldietan, aldiz, lehen unitatea jasota (*Lanera joango gara amarekin*) mezu hartzaileak ase senti liteke, besteren beharrik gabe; mezua ulertuta, esaldia bertan bukatuta ere (unitateak *predikazio gunea* osatzen du -PG-). Baina mezuak jarraitzen duenez (eta hori, ahozkoan, amaierako goranzko/goiko muga intonazio bereziak adierazi liezaioke; eta idatzian, esaldiaren erabateko eten ezak), (15-16b)ko lehen IUa jaso eta deskodetu ondoren, bigarrenak mezu hartzaileari ez dio jada kontatuko ZER GERTATUKO DEN, (15-16a)k egiten zuen bezala; baizik eta lehen IUan aditzera eman zaion mezu hura ZEIN BALDINTZATAN beteko den.

Beraz, (15-16)ko esaldien mezua amaieran bere bat izango bada ere, esaldiaren joanean (15-16a)k (17a, b) predikatuko du, eta (15-16b)k, aldiz, (18a, b):

- (17) a. Eguraldi ona egiten badu ⇨ ZER GERTATUKO DEN (edo hala nahi izanez gero:)
 b. ZER GERTATUKO DEN eguraldi ona egiten badu.
 (18) a. Lanera joango gara amarekin ⇨ ZEIN BALDINTZATAN (edo hala nahi izanez gero:)
 b. ZEIN BALDINTZATAN joango garen amarekin lanera.

Beraz, maiz bestela jokatu dugun arren, *mintzagai*-edo deitu ohi ditugun atalen ordenazio ezberdinek oso esaldi desberdinak ematen dizkigute, nahiz denek ustez *galdegai* bere bat mantendu Azkue-Altuberen arauetara. Eta hori oso kontuan hartzekoa da hizkuntza guztietan, ez

15. Hauek ere bere barne hierarkia prosodiko (beraz, predikatibo) jakina gordetzen dutelarik. Antzeko unitateei *mintzagai hanpatu* ere deitzen ohi zaie EGLU-I-Eranskinetik aurrera.

euskaraz bakarrik. Zer esanik ez, hizkuntzen arteko itzulpenean. Aipatu ezberdintasun berak aurkituko ditugu segidako esaldi pareen artean gaztelaniaz, frantsesez edo ingelesez:

- (19) a. [S'il fait beau] [nous irons à travailler avec maman.]
 b. [Nous irons à travailler avec maman] [s'il fait beau.]
- (20) a. [If the weather is good] [we'll go to work with mam.]
 b. [We'll go to work with mam] [if the weather is good.]
- (21) a. [Si hace buen tiempo] [iremos a trabajar con madre.]
 b. [Iremos a trabajar con madre] [si hace buen tiempo.]

Eta (19-20-21a)en parean, ezin eman liteke euskaraz edo beste hizkuntzetan, esaldiaren predikazio zentzua aldatu gabe, *b* aldakiei legokiekeen *Lanera joango gara amarekin eguraldi ona egiten badu*. Ez eta ere, *b* esaldien ordean, *a*-koei legokiekeen *Eguraldi ona egiten badu lanera joango gara amarekin*. Uste dut, ikuspegi hau maiz ez dela kontuan hartzen itzulpengintzan, eta ez gurean bakarrik.

Eta (15-16-19-20-21b)ko esaldiek badituzte garrantzizko berezitasunak. Ze *a*-koen aldean, bina predikazio gune osatzen dituzte. Ez bakarra. Orain arteko hizkera ohikoago batean esanda, lehen IUak galdegai bat edo izanen luke (*LANERA joango gara eta ez beste norabait*), eta bigarren IUak bigarren galdegai bat-edo emanen luke (*EGURALDI ONA EGITEN BADU joango gara eta ez beste baldintza batzuetan edo*). Eta mezu hartzaileak sentituko du bi predikazio jaso dituela, *a*-ko esaldiekin ez bezala, segidako bi esaldi independente jaso balitu bezalatsu.¹⁶ Bestetik, (15-16-19-20-21b)ko esaldiekin mezu hartzaileak lehenengo unitatea jaso orduko, hau jada mezu oso bezala ulertu dezakeelako, hau ezabatu ahal izango du lan memoria laburretik beste memoria mota batera iraganez, eta lan memoria laburra erabat arinduz, *a*-ko ordenamenduekin ezin-ingo lukeen bezala.

5. Eta zer gertatzen da «galdegaiarekin»?

Gure bigarren helburua da galdegai lege berri bat azaltzea, behin Azkue-Altuberena, galdegaia derrigorrez aditzaren aurrean kokatzen duena, apokrifo eta asmakuntzatzat eman dugunez gero. Begira diezaiogun aurreko ataleko esaldian aditz nagusia daraman IUari: *Lanera joango gara amarekin*. Eta eman dezagun orain hau dela esaldi osoa. Aditza osagai bakartzat emanik, 3 osagai ditu esaldian: *lanera*, *amarekin* eta *joango gara*. Eta 3 osagaien ordenaren 6 permutazio aukera ematen ditu (2 aditza tartean, 2 amaieran eta 2 hasieran):

- (22). a. Lanera joango gara amarekin.
 b. Amarekin joango gara lanera.

16. *Lanera joango gara amarekin, baina bakarrik, eguraldi ona egiten badu joango gara*, emanda bezalatsu.

- c. Lanera amarekin joango gara.
- d. Amarekin lanera joango gara.
- e. Joango gara lanera amarekin.
- f. Joango gara amarekin lanera.

Euskaltzaindiak gogorarazi bezala (1987, 22-3), ordenamendu guztiok dira zilegizko eta ohiko euskaraz. Azkue-Altuberen galdegai legeen arabera, ordea (eta EGLUk ere hala moduz, 23 eta hurr.), ordenamendu bakoitzak omen du berari derrigorrez lotua esaldiaren informazio egitura jakin bat, esanahi pragmatiko edo informatibo bakar bat, besteetatik desberdina. Eta hori da hain garbi ez dagoena. Lege kanonikoak dio aditzaren aurreko osagaia indartzen dela beti besteen gaintetik, edo aditza bera, hau denean lehen osagai. Hau, ordea, ez da horrela. Eta aho eta idatzizko tradizioak aratz erakusten du, nola (22a) esaldiaren ordenamenduak, esaterako, testuinguru eta intonazio modu desberdinetan, hiru osagaietako zeinahi indartu dezakeen: *lanera*, *amarekin*, edo *joango gara* aditza, segidan itxuratzen saiatu garen moduan:

- | | | |
|------|---------------------------------|--|
| (23) | a. LANERA joango gara amarekin. | ⇒ [↗LANERA joango gara amarekin↘] _{PG} |
| | b. Lanera JOANGO GARA amarekin. | ⇒ [↗LANERA(→↗)] _{PM} [↗JOANGO GARA amarekin↘] _{PG} |
| | c. Lanera joango gara AMAREKIN. | ⇒ [↗LANERA joango gara(↘↗)] _{PM} [↗AMAREKIN↘] _{PG} |

(23a)n *lanera* osagaia indartzeko, derrigorrean eman beharko da hau IU bakarrean, gailur prosodiko (azentuatibo, intonatibo) eta, beraz, predikatiboa unitate hasieran emana, euskaraz ohikoa den moduan. Ondoko osagaiak, berriz, beheranzko isats prosodiko-predikatiboa, etenik gabe bere artean. Eta unitateak *predikazio gunea* osatuko du. Hain zuzen, horixe da galdegai lege kanonikoak zilegitzen duen irakurketa bakarra.

(23b) esaldiak, ordea, aditza indartu ahal izateko, esaldia derrigorrez bi IUtan banatua emango du. Bigarrenaren gailurra aditzak berak izanen du, eta ondoko osagaia honen isats prosodiko-predikatiboa. Unitateak *predikazio gunea* osatzen du bigarren gunean. Lehen osagaia, berriz, bakarrik emango da IU propio batean, eta berez gertatuko da indartua. IUa, ordea, ez da predikatiboki beregaina izango gune horretan, eta *predikazio markoa* baino ez du osatuko. Hori eman ohi da aditzera amaierako goranzko (edo goiko) muga tonuaz.

(23c)k ere, aditz ondorengo osagaia azpimarratzeko, derrigor emango du esaldia bi IUtan banatua. Lehenean aditz aurreko osagaiak izango du gailurra, eta aditza arrastatuko du isats prosodiko-predikatiboa. IUaren amaierako goranzko (goiko) muga tonuak emango du aditzera etortzekoa den IUaren garrantzi predikatiboa, eta ez du osatuko *predikazio markoa* baino.¹⁷ Bigarren IUak, berriz, *amarekin* osagai bakarraz osatuko du *predikazio gunea*, berez indartua bere bakardadean.¹⁸ Eta ahoskera hau ere jator askoa da euskaraz, ahozko eta idatzizko tradizio-

17. Nahiz bere horretan ere osa lezakeen *predikazio gunea*, arrunki amaierako beheranzko intonazioaz: [↗LANERA joango gara↘]. Kasuan bigarren IUak bigarren *predikazio gunea* osatuko luke. Esaldiak, berritri, bi «galdegai» edo izango lituzke, 4. atalean ikusten etorri garenekoen pare.

18. Are, maiz, aurreko IUaren gailur prosodikoaren intentsitate (energia) edo intonazio (f0, oinarritzko maiztasun) mailak erdiesko ez baditu ere.

ak ezin hobeto erakusten duten legean (ik. zenbait datu I. eranskinen), nahiz Azkue-Altuberen arauak gaitzetsi duen XX. mende guztian barrena.

Gauza bera egin liteke (22b, c, d)ko segidekin, (24), (25) eta (26)n erakutsi bezala:

- (24) a. AMAREKIN joango gara lanera. → [↗AMAREKIN joango gara lanera↘]_{PG}
 b. Amarekin JOANGO GARA lanera. → [↗AMAREKIN(↘↗)]_{PM} [↗JOANGO GARA lanera↘]_{PG}
 c. Amarekin joango gara LANERA. → [↗AMAREKIN joango gara(↘↗)]_{PM} [↗LANERA↘]_{PG}
- (25) a. JOANGO GARA lanera amarekin. → [↗JOANGO GARA lanera amarekin↘]_{PG}
 b. Joango gara LANERA amarekin. → [↗JOANGO GARA(↘↗)]_{PM} [↗LANERA amarekin↘]_{PG}
 c. Joango gara lanera AMAREKIN. → [↗JOANGO GARA lanera(↘↗)]_{PM} [↗AMAREKIN↘]_{PG}
- (26) a. JOANGO GARA amarekin Lanera. → [↗JOANGO GARA amarekin lanera↘]_{PG}
 b. Joango gara AMAREKIN lanera. → [↗JOANGO GARA(↘↗)]_{PM} [↗AMAREKIN lanera↘]_{PG}
 c. Joango gara amarekin LANERA. → [↗JOANGO GARA amarekin(↘↗)]_{PM} [↗LANERA↘]_{PG}

Kurioski, ez da gauza bera gertatzen aditza amaieran daramaten (22e, f) ordenamenduekin. Hauetan gaitz gertatzen da aditzaren urruneneko osagaia indartzea, ondore justuan arrastatzen ez badu aditz nagusia IU bereko isats intonatibo gisa, bien artean beste osagairen bat(zuk) tar-tekatuz. Hala, (27a, b), (28a, b) arrunten ondoan, arrotz dira (27c), (28c) aukerak:¹⁹

- (27) a. Amarekin LANERA joango gara. → [↗AMAREKIN(↘↗)]_{PM} [↗LANERA joango gara↘]_{PG}
 b. Amarekin lanera JOANGO GARA. → [↗AMAREKIN lanera(↘↗)]_{PM} [↗JOANGO GARA↘]_{PG}
 c. (*) AMAREKIN lanera joango gara. → (*)[↗AMAREKIN] [lanera joango gara↘]
- (28) a. Lanera AMAREKIN joango gara. → [↗LANERA(↘↗)]_{PM} [↗AMAREKIN joango gara↘]_{PG}
 b. Lanera amarekin JOANGO GARA. → [↗LANERA amarekin(↘↗)]_{PM} [↗JOANGO GARA↘]_{PG}
 c. (*) LANERA amarekin joango gara. → (*)[↗LANERA] [amarekin joango gara↘]

Euskarak zorrotz betetzen du halakoetan *aditza bigarren* emateko joera, osagai toniko indar-tsu baten atzetiko osagai klitiko eta atono bezala (ik. 6. atala).

5.1. «Galdegai» lege berria

Formulatu genezake Azkue-Altuberenaren aurrean «galdegai» lege zentzuzkoago bat, esanez, galdegaia euskaraz, baiezko esaldi deklaratzailetan, hala joan litekeela:

1. Esaldiko aditz nagusiaren aurre justuan; esaldien heren batean edo gertatu ohi den eran, batez ere esaldi laburretan; edo hobeto esan, galdegai laburreko esaldietan; eta beti, ia salbuespenik gabe, hiztunak bategatik edo besteagatik aditza esaldi amaierarako uzten duen guztian.

19. Nahiz halako segidak ere inoizka aurkitzen diren ahozko edo idatzizko jardun jator askoetan, baina kopuru estatistikoki baztergarrian. Halakoen intonazioak, uste dugu, bi IUtara eraman ohi duela hiztuna. Lehenengoa, soilik azpimarratu nahi den osagaiaz osatua; eta bigarrena, isilune nabarmen baten ondoren emana, nahiz eta prosodikoki artean lehenengoaren beheranzko isatsa besterik ez izan.

Edo 2. esaldiko aditz nagusiaren ondorean nonahi, euskarazko esaldien beste bi herenetan edo gertatu ohi den gisan; eta batez ere esaldi luzexegoetan edo galdegai luzexegokoetan; eta oso bereziki, aditza esaldi amaieratik kanpo erakutsi ohi duten haietan (10etik 7 baino gehixego ohi direnak euskaraz). (ik. I. eranskineko datuak).

5.2. Galdegai lege kanonikoaren adierazkortasun murrizteak

Azkue-Altuberen sistemak ikaragarri murrizten ditu euskal prosaren adierazkortasun aukerak. Ikusten gatozen 3 elementuko esaldian (aditza eta bi osagai), 6 permutazio aukeren 18 enfasi aukera teorikoetatik, euskarak 16 erabili ohi ditu, testuinguru eta intonazio aukera desberdinetan. Azkue-Altuberen sistemak horietako 6 baino ez. Hau da, aukeren %37,5. Bestela esanda, sistema horrek adierazkortasun aukeren %62,5 lapurtzen dizkio hiztunari aditz eta 2 osagaietako esaldi laburretan. Proporzio hori oraindik doa goraka esaldiek osagaiak irabazi ahala. Kuriositatez, segidako taulan ikus litezke proporzio horiek:

	Esaldi elementuen enfasi aukerak (aditza barne)			
	Teorikoak	Euskaraz erabiliak	Altubek baimenduak	Altubek baimenduak %tan
Elem. 1	1	1	1	100
2 elem.	4	4	2	50,0
3 elem.	18	16	6	37,5
4 elem.	96	78	24	30,8
5 elem.	600	456	120	26,3
6 elem.	4.320	3.120	720	23,1
7 elem.	35.280	24.480	5.040	20,6
8 elem.	322.560	216.720	40.320	18,6
9 elem.	3.265.920	2.136.960	362.880	17,0
10 elem.	36.288.000	23.224.320	3.628.800	15,6

Ba ote du adierazkortasun aukeren murrizketa honek zerikusirik gaurko euskal prosa estandarrek erakusten duen adierazkortasun murriztarekin? Nola ez?!

5.3. Nola adierazi ortografikoki aukera ugaritasun hori

Azkue-Altuberen galdegai sisteman heziak izan garen guztioi arazo zaigu sistemaz kanpoko esaldien bi heren horien errepresentazio grafikoa eta irakurketa. *Lanera joango gara amarekin* esaldia ez dakigu irakurtzen modu kanonikoan baino: [↗*LANERA joango gara amarekin*↘]. Aditza azpimarratu nahi izanez gero, koma arruntak lagundu ohi digu, eta *Lanera, joango gara*



amarekin irakurriko dugu: [↗LANERA(↘↗)] [↗JOANGO GARA *amarekin*↘]. Komak, kasuan, gozanko intonazioa eragiten du *lanera* osagaiaren amaieran, ohiko beheranzkoaren orde. Aditz ondorengo *amarekin* osagaia azpimarratzeko, ordea, ez dugu modurik. Komarik gabe, aipatu IU bakarreko irakurketa egin ohi dugu. Eta aditz ondoko komak, berriz (*Lanera joango gara, amarekin*), nahi ezta ere ohi garamatza aditza beheranzko intonazioz ematera aurreko osagaia azpimarratuz berriro ([↗LANERA joango gara↘]), eta zer egin, nola intonatu jakin gabe uzten gaituela aditz ondoko *amarekin* bezalako osagai bat.

Nolanahi, arazoa ez da den baino larriagoa. Esaldiak ez ohi dira eman testuaurrerik gabe, eta honek aginduko du irakurketa bat edo beste. *Nor zara zu?* galdera idatziari, *Ni naiz Elena* erantzuna, nekez intonatuko da IU bakarrean [↗NI naiz Elena↘] moduan. Nahiz gu lakoek, Azkue-Altuberen sistemaren ikasle on, problema bat izanen dugun, jakinik, sistemak debekatzen digula [↗NI naiz(↘↗)] [↗ELENA] irakurketa. Arazoa konpondua da halako irakurketak onartuz sistema barnean (eta ikasleak aukera idatzi horietan ere ohituz, ahazkoan jada ohituak dauden

bezala).²⁰ Gure esaldira itzuliz, testuurreak galdetzen badu *Nora joango zarete amarekin?* (edota modu batera edo bestera testuurre honek jada *Amarekin joango garela* eman badigu aditzera), ze arazo izanen du irakurleak segidako zeinahi ordenatan ere, *lanera* osagaia jasotzeko informazio berri, pertinente, bilatu, indartu edo enfatizatu bezala?

- (29) Nora joango zarete amarekin? a. LANERA joango gara amarekin. ⇒ [ʃLANERA joango gara amarekin]PG
 (Edota testuurre baliokidea) b. Joango gara LANERA amarekin. ⇒ [ʃJOANGO GARA(ʌʃ)]PM [ʃLANERA amarekin]PG
 c. Joango gara amarekin LANERA. ⇒ [ʃJOANGO GARA amarekin(ʌʃ)]PM [ʃLANERA]PG
 d. Amarekin LANERA joango gara. ⇒ [ʃAMAREKIN(→ʃ)]PM [ʃLANERA joango gara]PG
 e. Amarekin joango gara LANERA. ⇒ [ʃAMAREKIN joango gara(ʌʃ)]PM [ʃLANERA]PG
 f. (?*) LANERA amarekin joango gara. ⇒ (?*) [ʃLANERA]PG [amarekin joango gara]PG

Bestela esan, ze arazo izanen du irakurleak *Lanera joango gara amarekin* esaldia, modu batera edo bestera interpretatzeko, segidako testuurreetako bakoitzaren ondoren?

- (30) a. Nora joango zarete amarekin? ⇒ LANERA joango gara amarekin [ʃLANERA joango gara amarekin]PG
 b. Norekin joango zarete lanera? (Bada, ...) ⇒ Lanera joango gara AMAREKIN [ʃLANERA joango gara(ʌʃ)]PM [ʃAMAREKIN]PG
 c. Joango zarete lanera amarekin? (Bai) ⇒ Lanera JOANGO GARA amarekin [ʃLANERA(ʌʃ)]PM [ʃJOANGO GARA amarekin]PG

Nolanahi ere, zenbaitetan irakurketarako mesedegarri izan liteke prosodiaren banaketa desberdin horietako batzuk ortografikoki adierazi ahal izatea; edo testuurrea berez nahiko ez delako irakurketa desanbiguatzeko (hasierako esaldiak, ...), edota, beste gabe, desanbiguazio horretan laguntzeko. Eta hori egin da orain baino lehenago ere euskal tradizioan, jada koma bidez (edo bestela) adierazia gertatzen ez denean, modu erraz batean, apostrofo bat emanez (goiko marra, goiko arrasta/arrastoa, ...) komeni den IUen artean; amaitzen den IUaren goiko edo goranzko intonazioa adieraziz, eta berriaren gailurra markatuz. Komaren aldean, goiko arrastak beti adierazten du predikazioaren segida, eta bultzatzen IUa goiko tonuz amaitzera:

- (31) a. Lanera joango gara amarekin. ⇒ LANERA joango gara amarekin. [ʃLANERA joango gara amarekin]PG
 b. Lanera' joango gara amarekin. ⇒ Lanera JOANGO GARA amarekin. [ʃLANERA(→ʃ)]PM [ʃJOANGO GARA amarekin]PG
 c. Lanera joango gara' amarekin. ⇒ Lanera joango gara AMAREKIN. [ʃLANERA joango gara(ʌʃ)]PM [ʃAMAREKIN]PG

- (32) a. Ni naiz Elena. ⇒ Ni naiz Elena. [ʃNi naiz Elena]
 b. Ni naiz' Elena. ⇒ Ni naiz ELENA. [ʃNi naiz(ʌʃ)] [ʃELENA]

Altubek defendatzen du maiz apostrofo honen beharra (1932, 102-3; 117; 195-201; 228-9):

Este signo, con el que señalamos el final del miembro ante-inquirido (Au' ... Ori' ... Gizona' ...), indica que ese final se pronuncia en tono recto o tenso, sosteniendo la última sílaba por lo menos a la

20. Denok horretara jarrita ez genituzke ehun urte beharko euskaldunak puntu honetan ere bere ahozko eta idatzizko tradizioarekin errekontziliatzeko. Baina badu lan gu desprogramatzeak, ehun urtez bestela ikasita.

misma altura que las anteriores; indica además que ese miembro forma ordinariamente un tonema separado e independiente del que diseña el miembro subsiguiente, el inquirido. (117).

Eta bere azken urteetako idatzietan praktikatuko. Trikimailuaren asmakuntza, nolana, ez dagokio, betiko lez, Azkueri baino. Honek praktikatzen du *goiko arrasta* bere lehen garaiko idatzi guztietan,²¹ eta hala predikatzen du (1891, 27; 35-6):

Lenengo Araua. Esaldiak ondo oguzteko' alkar mendetuta dagozan itzak' arnasa baten oguzi bear daue. / ... / Noiz arnasa artu leiken' edo zeintzuk daizan itz alkar mendetuak' itzen goiko marratxoak dinoskue. (27 or.) / ... / Goiko arrasta. Marra au barria dai; bear bearra dailako sortu daut. Euskal itzak' euren berarizko Iripidea gaitik' erdaldunak marrarik ipinten ez dauen lekuan bere' marraren bat bear daue' euren agerkizuna ilundu nai izan ezik. / ... / 90. ¿Noiz, bada, oitu bear izango dai goiko arasta? / Arnasa artuteko peremiña' ta itzen agerkizuna nastuteko arrizkua dagoenean, bezte marrarik onetarako oitu al izan ezik. (35-6 orr.)

Azkuek gerora ez du erabiliko bere lanetan. Baina Mokoroa (1990)k, esateko, erruz eta argi darabil. Eta izan ere, Azkuek eta Altubek argi ikusi bezala, euskaraz irakurketa arazoa ez da bakarrik gertatzen esaldiko «galdegaia» aditzaren ondotik duten esaldietan. Arazoa beti gertatzen da beste intonazio unitate independente bat (edo gehiago) eman nahi denean esaldiko lehen predikazio gunearen aurretik. Eta joera hau erruz puztu da XX. mendeko estilo aditz atzera zalean, testuen irakurketa arazoak areagotuz. Maiz ez dakigu unitate bat non bukatzen den, non hasten bestea. Eta hau (gure inguruko AO -Aditza-Objektua- itxurako hizkuntzetan ez bezala, hauetan IUaren predikazio gailurra amaieran eman ohi baita), garrantzi handiko kontua da euskaldunontzako, guk aurretik jakin behar baitugu unitatea non amaitzen den, honi goi edo goranzko tonua erantsi ahal izateko, eta garrantzi gehiagokoa dena, unitate berria non hasten den, honi derrigorrez hasieran emateko gailur prosodikoa (AO hizkuntzetan ez bezala).²² IUen arteko muga markatu gabea baldin bada, irakurketan maiz gertatzen gara atzera itzuli beharrean unitateen arteko muga intonazioak egoki emateko.

6. «Aditza bigarren»erako joera euskaraz

Hizkuntza askok darakutsate «aditza bigarren» deitu fenomenorako joera. Hauek dira, euskaraz bezala, OA (Objektua-Aditza) ordenamendurako joera dutenak, edota oraindik ere historian inoiz halakoak izan direlako arrastoak erakusten dituztenak. Halakoa da latina, esateko,

21. Baita *Bein da betiko* narrazioan ere, nahiz hauek ez diren errespetatu EEEko 1986ko edizioan.

22. Gure hizkuntzaren (OA -Objektua-Aditza-) eta inguruko AO itxurakoen arteko desberdintasun oinarritzko honek, eman liezaguke baimena hizkuntza hauetan erabili beharrik ez duten zeinu bat erabiltzen hasteko. Mesedeek handiak dirudite. Aipatuz gain: izen sintagma konposatuaren arteko gailur desberdintasunak bereizteko (*Gizon ona etorri da* ⇨ *GIZON ona etorri da*; *Gizon' ona etorri da* ⇨ *Gizon ONA etorri da*. // *Tolosako frontoian izango dira partidak* ⇨ *TOLOSAROK frontoian ...*; *Tolosako' frontoian izango dira partidak* ⇨ *Tolosako FRONTOIAN ...*); edota erlatibozko aditzen eta lehen aldiko aditz arrunten arteko aldea bereizteko (*Gurekin etorri zen gizona* ⇨ [*♯GUREKIN etorri zen gizona*♯]; *Gurekin etorri zen gizona'* ⇨ [*♯GUREKIN etorri zen gizona*♯♯]);...

eta halako zantzuak dituzte gaur eguneko hizkuntza germaniarrek (alemana, ...). Eta halako joeren ondorio besterik ez dira, esateko, ingelesaren edo frantsesaren derrigorrak subjektua beti aditzaren aurretik emateko (inoiz beste adberbioren bat). Baina OA hizkuntzetan, zenbait osagai bigarren emateko joera, orokorragoa da; ez aditzena bakarrik. Hautetan, esaldiko osagai gramatikalek, aditzak barne (posposizioek, deklinazio kasuek, aditz laguntzaileek, ...), oro har dute joera esaldiko beste osagai lexiko tonikoagoen ondoretik agertzeko klitiko eta atono bezala; hauen ondoretik arrastatuak edo. Eta fenomenoak badirudi zerikusia duela OA hizkuntzok duten joerarekin intonazio unitateetako gailur predikatiboak unitate hasieran emateko (eta ez amaiera aldera AO hizkuntzetan legez). Euskaraz ez da zalantzarik halako joerak ditugunez: aditz laguntzailea beti eman ohi da baiezko esaldian aditz partizipio nagusiaren eskuinean klitiko bezala (ezezkoetan *ez* partikula berari eskuinetik erantsia klitikoki); posposizio-deklinazio sistema orokorra darabilgu; partikula askok dute bigarren osagai bezala agertzeko joera beste osagai ez oso luzeen ondoren, ...²³

Eta horixe gertatu ohi da euskaraz aditzarekin, esanguratsuki, gaztelaniaren iruntzietara. Gaztelaniazko *Es tarde* bezalako bi osagai soileko esaldia, euskaraz *Berandu da* eman ohi da, eta ez, ohituraz, **Da berandu* segidan.²⁴ Hori da euskarak duen joera aditza bigarren emateko (IUaren hasieran osagai lexiko toniko garrantzitsua, eta honen isatsean, klitikoki, osagai gramatikal atonoa), gaztelaniak, aldiz, aditza, osagai gramatikala, lehenago ematen duen bezala, osagai lexiko toniko garrantzitsuak IUaren amaierarako utziaz. Horregatik, maizenik, gaztelaniazko *aditza + osagaia* (AO) bikoteak eman ohi dira euskaraz *osagaia + aditza* (OA) segidan, eta ez gaztelaniazko ordenan, jada Altubek garbi azaltzen duen bezala (1929, 13; 1919, 12) gaztelaniazko AO bikoteak OA emanez euskaraz, atzekoz aurrera ordenatuak:

- (33) a. Ser bueno / Estar quieto / Venir hoy / Andar bien / Ir a casa / Morir por la patria / Comer pan / Ver a la madre
 b. Ona izan / Geldi egon / Gaur etorri / Ondo ibili / Etxera joan / Aberriarren il / Ogia jan / Ama ikusi

Baina Altubek eta jarraitzaileek halako adibideetatik eratorri dugun printzipioa, gaztelaniaz aditza esaldi hasieran ematen den bezala, euskaraz amaieran-edo eman behar dela, ez da zuzena. Ze, gauza bat da esatea *aditza euskaraz gaztelaniaz baino postu bat atzerago-edo eman ohi dela*, egia dena, eta beste bat, arrazoi honetan oinarrituta, *aditza euskaraz esaldi amaierara bidali nahi izatea*. *Berandu da* da euskaraz *Es tarde*, baina nola da (34), 35a ala b?

- (34) Es tarde para poder hacer ahora con ganas todas las cosas que quisiéramos hacer.

23. *Ordea, baizik, ere*, ... itxurakoek; nahiz halakoak ere maiz eman ohi diren *-ez ere* lokailua- intonazio unitate beregainetan, lotu nahi duten osagaiaren aurretik, bereziki, hauek batere luzeak diren orduko.

24. Nahiz halakoak maiz entzuten ditugun gaur egun, gaztelaniaren eragin zuzenagatik seguru asko, hegoaldeko gazteen artean, batez ere inguru ez euskaldungietan. Horrek ez du esanahi, nolana, aditz trinkoak aurkitu ezin litezkeenik buruzuri zeinahi garaitako euskaraz esaldien hasieran ere. Datoren bat aipatzen da I. eranskinean.



- (35) a. Berandu da orain gogoz egin ahal izateko egin nahi genituzkeen gauza guztiak.²⁵
 b. Egin nahi genituzkeen gauza guztiak orain gogoz egin ahal izateko berandu da.

Biak euskaraz onak izanda ere, biak dira desberdinak, 4. atalean hausnartuaren bidetik. (35a) bakarrik litzateke gaztelaniazko (34)ren pareko. (35b), aldiz, (36)ren parekoago:

- (36) Para poder hacer ahora con ganas todas las cosas que quisiéramos hacer es tarde.

(34, 35a) esaldien bigarren atalak kontatzen digu *ZERTARAKO den berandu*. Aldiz, (35b) eta (36)ren bigarren atalak kontatzen digu *BERANDU DELA aipatu kontuetarako*.

25. Era berean, Azkue-Altuberen joskera lege garrantzitsua da, guk denok ongi bezain kaltegarriki ikasia geroztiko gramatiketan, mendeko esaldia beti aditzak amaituko duela (*egin ahal izateko* aditza amaieran). Lege hau ere, ordea, galdegaiarena bezain apokrifoa eta asmakizun da, eta hainbat eta kaltegarriagoa zenbat eta esaldi luzeagoan erabat artifizialki zailtzen duelako hauen ulergarritasuna. Hauei buruzko zenbait datu I. eranskinean.

«Aditza bigarren» fenomenoak maiz ematen digu aukera euskaraz aditz hori nahikoa aurre-ratzeko esaldian, hau emanez hitz toniko baten ondoretik (maiz adberbio, baina baita ere bes-terik). Eta horixe da hainbatek jada gomendatu duen teknika *galdegai faltsuak*-edo erabiltzeko esaldian aditz nagusia aurreratzeko modu bezala, nahiz esaldiko pisu predikatiboa nabarmen segi ematen *galdegai faltsu + aditza* bikotearen ondoretik. Mitxelenaren segidako testuan kon-tura gaitzke nola darabilen «aditza bigarren» teknika, hau batere atzeratu gabe esaldian (bel-tzaxketan aditz aurreratuak eta letra etzanetan aurreko elementu tonikoak):²⁶

*Gogoz abiatu naiz, bestetan ez bezala, euskal hiztegi honen atalurrean hitz batzu moldatzen. ... Beldur nintzen eta beldur naiz, beste modura esango dut luzeegi jardungo dudala*²⁷ neure jardunean, edozeinek luzesteko bezain luze. *Erraz sor daitezke horrelako bidegabekeriak hiztegiak, eta euskal hiztegiak batipat, gogora orduko. / Bada eztabaida franko, borroka ere bai, euskal hitz altxorri buruz: hor dabilta, izan ere, gureak, gureganatuak (hauek ere gure-gure dira, gureganatze hori zinetan eta benetan burutua dagoen heinean), eta gureganatzeak batipat, gureganatze bidean direnak eta omen direnak, horietan baitago, bestetan baino areago, sesiobidea. / Zoritxarrez, eta hau da uste du-danez auzi honek duen alderik okerrera, proposatu egiten dira hitzak zein hitz mordoak -sartzen eta sarrarazten saiatu, alegia-, baiezko nahiz ezezko arrazoibideak garbierogi azaltzen ez direlarik, haatik. Nik behintzat, gauzen berri ikasi ez dudalako edo, maizago jakiten ditut zeharka zuzenean baino. ... / Gogora datorkit ustez irakurri berria dudan zerbait. Demagun, eta gustora emango nuke, hitz baten jatortasunak -antzinatasuna eta hedadura hartzen ditugarik neurri, hauek ere errietan maiz dabil-tzala jakinik- eta nazioartekotasunak pisu larria dutela berorren «euskaltasuna» mugatzeko. Bistan da, ez dela usu aski «hau eta hori» nahiz «hau edo hori» atera behar den kontua, «hau ala hori» baino. Zer erabaki orduan? Hor daukagu beti pisagarritzat asko eta gehiegi den nahia; gogoak ematen diguna, nolazpait esan. Horrela gerta daiteke eta gertatzen da nazioartekotasuna gailen irtetea, nazio-artekotasun hori «nazio bakar baten artekotasuna» besterik ez bada ere.*

Ez da esaldi nagusi bakar bat aditzaz amaitzen (ezta ere mendekorik ia), nahiz guztietan garbi dagoen esaldiko pisu predikatibo nagusia, aditz nagusi horren ondoretik doala.²⁸

6.1. Itzulpengintza eta idazkuntzarako aholkuak

Laburbiltzeko, bi aholku euskararako itzulpengintza eta idatz tekniken inguru:

1. Aditza ez gehiegi atzeratu esaldian.

- a. Nahiz oro har komeniko den aditz hau gure inguruko AO hizkuntzetan baino postu bat atzerago edo ematea, intonazio/informazio unitatearen barneko egitura aldatuz.
- b. Hala ere, saiatu beharko dugu ahalen neurrian informazio unitate desberdinen orde-na bertsua mantentzen hizkuntzen artean.

26. Sarrera kriptikoa Sarasolaren *Euskal Hiztegia*-ren 1. argitalpenari (orduan *Hauts-lanerako Euskal Hiztegia*).

27. Aditza ez atzeratzearen teknika, ez da soilik esaldi nagusietako fenomeno, mendeko esaldi hautsi honetan sumatu litekeen bezala. Hurrengo lerroetan ere badira halako gehiago.

28. Testua, hala ere, ez da batere erraza, eta ondoriozta liteke ordenamendua ez dela argitasunaren giltza bakarra.

2. Dislokazioak uxatu elkarren artean funtzioz edo esanahiz zerikusia duten osagaien artean.
- a. Bai esaldi barnean, kontuz ibiliz,
- Ezezko esaldietan osagai luzeegiak sartu gabe aditz laguntzaile eta nagusiaren artean.
 - Aposizio luzeek eragin etenekin (hauek hautsiz edo/eta esaldi amaierara eramanez).
 - Erlatiboek eragindako etenekin (hauek ere eman bailitezke aposizioan edo hautsirik).
 - Mendeko esaldietan ez gehiegi atzeratzen aditza eta honi erantsitako menderagailua (esaldiok ere hautsirik emanez behar denean).
 - Oro har, kontuz ibiliz osagai luzeekin, hauek maiz eman bailitezke esaldi amaieran eta, hala ere, beren buruak amaierarako utzi gabe.
- b. Bai esaldien artean, gehiegi atzeratu gabe esaldiko aditz nagusia. Eta oro har:
- Esaldi hasiera aldera emanez, aurreko esaldiekin zerikusia eta lotura egiten duten osagaiak:
 - Lokailu eta juntagailuak.
 - Aditza (aberastasun semantiko eta morfologikoez egiten baitu lotura aurrekoekin).
 - Eta esaldi amaiera aldera emanez:
 - Osagai berrienak eta
 - Arrunki ondoko esaldi(et)an berriro gogoratu (behar)ko ditugunak.

I. ERANSKINA: Euskal joskeraren zenbait datu


1994an burutu nituen zenbait estatistika, euskal esaldien ordenamenduaren inguru, Axular, J.A. Mogel, J.B. Agirre, Duvoisin eta J. Etxepareren zenbait testu aztertuz (corpusaren laurden bat inguru), eta beste hiru laurdenak-edo, aztertuz, XIX eta XX. mendeetako ahozko testigantzak (Webster eta Cerquanden ipuin bildumak, R.M. Pagolaren *Euskalkiz euskalki* bilduma, ETB1eko zuzeneko *Ados?* eztabaida programako hiru saio, eta bi euskaltzainen mintzo libreak). Denera 4.500 bat baiezkoko esaldi deklaratazile nagusi, 2.500 mendeko esaldi jokatu, beste 600 bat erlatibo, eta 2.000 mendeko esaldi jokatugabe inguru. Eta corpus honen parean aztertu nituen, konparaziorako, Mendibururen itzulpenak, eta gaur egungo euskara idatzi estandarreko A. Lertxundi, Argia eta Euskaldunon Egunkariko zenbait testu.²⁹

1. Aditzaren gunea esaldian

Corpusetako baiezkoko esaldi nagusi deklaratazileen %28,1ek du aditza esaldi amaieran³⁰ –gaur egungo testuetan esaldien %39,2k–. Aditza esaldi hasieran, berriz, corpuseko esaldien %14,3k³¹ (hautetako %5,9 –hau da, guztien %0,85– aditz trinkoa esaldi hasieran) –gaur egungo prosan, aldiz, ia desagertu egin dira: %1,4–. Corpuseko esaldi gehienek, %57,6k, dute aditza esaldi barrenean –baita gaur eguneko prosan ere: %59,4–. Ikus taula eta grafikoa:³²

Aditzaren gunea esaldian:

	Aditza hasieran	Aditza tartean	Aditza amaieran
Euskarazko corpusean	14,3	57,6	28,1
Gaur eguneko estandarrean	1,4	59,4	39,2



29. Datu hauen ikuspegi zabalagoa ematen da Hidalgo (1999d)n, eta areago (1994d)ko tesi argitaratugabeen.

30. Idazle klasikoek batez beste %18,6. Axularrek, %39,4. Moglek %10,6. Eta Agirrek %3,8.

31. Idazleek batez beste %18,1. Axularrek %6,9. Moglek %32,8 (%5 aditz trinko). Agirrek %27,2.


32. Euskara estatistikoki ere ez da SOA hizkuntza, SAO baino (ik. Hidalgo, 1995).

2. Aditza tartean eta esaldiaren pisu predikatiboa aditz aurrean edo atzean

Aditza tartean daramaten esaldien distribuzioa, ordea, zeharo desberdina da tradizioiko corpusean eta gaur egunekoan. Corpusean, galdegaia aditzaren ondoretik ematen du 10 esalditik 8k (%79,0).³³ Gaur egungo testuetan, ordea, proportzio hori %20,1era erortzen da. Aldiz, corpusean galdegaia aditzaren aurre justuan erakusten du esaldien %10,8k bakarrik, Azkue-Altuberen galdegai legea betez.³⁴ Gaur eguneko testuetan, ordea, legea %51,2n betetzen da. Badira gainera hainbat esaldi baregatik edo besteagatik (batez ere galdegaia-edo aditzaren aurre eta ondorenean agertzen delako, bietan). Halakoak dira corpusean %10,2. Gaur egun, berriz, atal hau ere erabat putzen da %28,7raino. Ikus taula eta grafikoa:

Galdegaia aditzaren aurrean edo atzean aditza tartean duten esaldietan:

	Gald. ad. ondotik	Gald. ad. aurretik	Bestela
Euskarazko corpusean	79,0	10,8	10,2
Gaur eguneko estandarrean	20,1	51,2	28,7




3. Aditzaren gunea eta esaldien luzera

Aditzaren guneak esaldian zerikusi estua du nondik-nahi esaldien luzerarekin. Hala ikus liteke segidako taula eta grafikoan esaldiak osagaika sailkatuta (1, 2, 3, 4 eta 5 edo osagarri gehiagoko esaldiak). Lehen zutabean esaldion pisua corpusean ehunekotan (aztertu 4.500 esaldien artean). Bigarren zutabean, aditza hasieran erakusten duten esaldien %a (guztiek-edo ematen dutelarik esaldiko pisu predikatiboa («galdegaia») aditz horren ondoretik). Hirugarrenean, aditza tartean izaki, «galdegaia» aditzaren ondoren erakusten duten esaldien %a. Laugarrenean, aditza tartean izaki ere, galdegaia aditzaren aurretik, modu kanonikoan edo, erakusten duten esaldien %a. Eta azkenekoan, aditza amaieran erakusten duten esaldien %a (hauetako ia guztiek dutelarik esaldiko pisu predikatiboa aditzaren aurre justuan).

33. Idazleen batez bestekoa %73,7koa da. Axularrek %81,9. Mogelek %83,3. Agirrek %84,7.

34. Idazleen batez bestekoa %12,9koa da. Axularrek %4,3 baino ez. Mogelek %5,9. Agirrek %3,8.

	Esaldien	Hasiera	Gald ond	Gald aur	Amaiera	%
Osagai 1	10,0	26,8	////////////////////////////////////		73,2	100 %
2 osagai	14,1	15,6	22,9	8,0	53,4	100 %
3 osagai	13,8	11,8	38,1	10,1	40,0	100 %
4 osagai	11,1	11,6	49,3	10,1	29,1	100 %
5 osagai (edo geh.)	51,0	14,4	67,5	5,8	12,3	100 %



Ohartzekoa da nola esaldien luzatzearekin, alde batetik, pentsatzekoa den bezala erabat murizten diren aditza amaieran duten esaldiak. Bestetik, ia proportzio berean hazten da pisu predikatiboa aditzaren ondoretik daraman esaldien kopurua. Bitartean aldaera handirik gabe gertzen dira pisu predikatiboa aditzaren aurre justuan daramaten esaldiak, edota aditzaz hasten den esaldi kopurua (nahiz hauek %26,8 ere badiren osagai bakarreko esaldien artean).


4. Aditza esaldi aurrealdean ala atzealdean?

Goiko taulen esanahia laburbilduz jaso dugu hurrena esaldiek duten joera Azkue-Altuberen galdegai legea betetzeko, edo ez betetzeko. Legea betetzen dutenak bildu ditugu *Aditza esaldi atzealdean* zutabeen. Legea bete gabe, esaldiko pisu predikatiboa aditzaren ondoretik ematen dutenen %a *Aditza esaldi aurrealdean* zutabeen. Denera, heren batek baino ez du betetzen galdegai lege kanonikoa (%35,4), eta bi herenek ematen dute esaldiko pisu predikatiboa aditzaren ondoretik (%64,6). Gaur egungo prosa estandarrean ez bezala. Honetan aditza ez da esaldi aurrealdean ematen, esaldien %18,2n baino, eta aldiz atzealdean %81,8n. Ba ote du horrek zerikusirik gaur eguneko prosaren ulergaitzasunarekin? Segur.

Nolanahi, galdegai lege kanonikoa ez betetzeko joera hainbat nabarmenagoa da esaldiak luzatzearekin batera, baina ohartu behar dugu gure corpusean ere, ahozkoa bere 3/4etan, 5 edo osagai gehiagoko esaldiak direla erdiak baino gehiago: %51. Kontuan hartzekoa da, nolanahi, are esaldi «luz» hauen artean ere %18,1ek artean betetzen duela galdegai lege kanonikoa (%39,1ek 4 osagaikoen artean,...). Baina esaldi laburren artean ere oso ugariak dira lege

kanonikoa betetzen ez dutenak: %26,8 osagai batekoen artean, %38,5 2koen artean –*Lanera joango gara amarekin* itxurakoak–. Oreak hiru osagaiko esaldien artean. Beraz, argi, luzera ez da hiztunak duen arrazoi bakarra esaldiak modu batera edo bestera josteko. Testuinguruak, hiztunaren borondate subjektiboak, eta honek esaldiari, bategatik edo besteगतिक ezarriko dion segmentazio prosodikoak izanen dute zerikusi nagusia. Segidan datuak:

	Ad. aurrealdean	Ad. atzealdean
Osagai 1	26,8	73,2
2 osagai	38,5	61,5
3 osagai	49,9	50,1
4 osagai	60,9	39,1
5 osagai (edo +)	81,9	18,1
DENERA:	64,6	35,4 ³⁵




5. Mendeko esaldi jokatuk

Jakingarriak dira gure corpusean mendeko esaldien inguruko datuak. Aditz jokatuko baiezko mendekoen artean (erlatiboak kanpo)³⁶ %52,1ek erakusten du aditza esaldi amaieran modu kanonikoan (esaldi hautsigabeak), eta %47,9k aditz hau esaldi barranean (hautsiak edo), artean zenbait osagai erakutsiz aditzaren (eta atzizki menderagailuen) ondotik. Ezezko esaldien artean, berriz, hautsiak dira %81,7 eta hautsigabe kanonikoak %18,3 baino ez. Gaur egungo prosa estandarrean, aldiz, soilik baiezko esaldien %16,8k ematen du aditza esaldi barranean. Nahiz ezezkoetan %54,1ek ere bai. Bestalde, zenbat eta esaldi luzeagoak, hautsiak agertzeko joera handiagoa. Hala ikus liteke segidako taula eta grafikoan (lehen zutabea osagai kopuru horretako esaldi proportzioa corpusean; bigarren esaldi hautsiena, hirugarrenean hautsigabea):

35. Idazleek, batez beste, %72 aurreratzen dute aditza. Axularrek %56. Mogekek %85,3. J.B. Agirrek %93. Atzeratu, berriz, idazleek, batez beste, %28. Axularrek %44. Mogekek %14,7. J.B. Agirrek %7.

36. Erlatiboei buruzko datuetarako jo Hidalgo (2002a-e)ra.


	Esaldien	Hautsiak	Hautsigabeak
Osagai 1	23,5	11,3	88,7
2 osagai	22,0	34,4	65,6
3 osagai	14,8	53,6	46,4
4 osagai	11,2	65,2	34,8
5 (edo geh.) osagai	28,6	78,2	21,2
Denera:	% 100	47,9	52,1



5.1. Mendeko esaldi jokaturgabeak

Aditz jokaturgabe bidezko mendeko esaldietan, oro har, %21,3 baino ez da hautsirik ematen corpusean (%78,7 hautsigabe). Proportzio desberdin horrek, mendeko esaldi jokatuaren aldean, badu zerikusia, nolana, halako esaldiak, oro har, laburragoak ohi izanarekin, segidako taulan ikus litekeen bezala (nahiz ez den hori izanen desberdintasun arrazoi bakarra). Gaur eguneko prosa estandarrean ia desagertzen dira esaldi hautsiak (%3,2 hautsi).

	Esaldien	Hautsiak	Hautsigabeak
Osagai 1	47,1	6,1	93,9
2 osagai	22,6	18,3	81,7
3 osagai	12,1	33,3	66,7
4 osagai	6,6	41,0	59,0
5 (edo geh.) osagai	11,5	65,5	34,5
Denera:	100 %	21,3	78,7



II. ERANSKINA: Zenbait testu aztergarri (eredugarri?)

Segidan darakutsagu zenbait testu labur, ahozko (1-6) nola idatzizko (7-11), zalantza gabe aztergarri direnak hitzen ordenaren ikuspuntutik, eta euskal erabilera benetakoen isla izan litezkeenak, irakurtzera ohituta gauden euskara estandarren aldean. Beltzaxketan nolabait ar-
rateratutako aditzak. Etzanetan, kanonikoki emanak edo. Eta etzan beltzaxketan, kanonikoak izaki ere, esaldiko pisu predikatiboaren atalen bat bederen ondoretik daramatenak.

1. **Espainia eta pakea** (J.F. Cerquand, *Ipar Euskal Herriko legenda eta ipuinak*, 1874-1884, Txertoa, 1985, A. Arana, 19).

Jesus Kristo gure Jauna eta Jondoni Petri **zabiltzan** Espainian ebanjelioaren predikatzen. Herri batean *paratzen zirelarik*, heienganat heldu **ziren** lekhu hartako handietarik zenbait, behar **zutela** okasioneaz **baliatu** beren erresumaren sekulako zorionaren *egiteko*. *Mintzatzen direlarik* Jondoni Petriri **erraiten diote**:

— Jauna, fagore eske *heldu gare*. **Othoizten zaitugu**, ardiets **dauzkigutzun** lau gauza gu guzien nagusiarengatik, **amorekatik** eta **izan dadin** gure erresuma bethikotz uros. **Nahi ginuke** ogi, arno eta hafagi ausarki, eta laugarrenekorik bakea.

Hekien galdea *entzun* eta Jesus Kristok **erraiten diote**:

— *Ex da* posible lau gauza horiek **izan diten** elgarekin. **Emaiten dauzkitzuet** ogia, arnoa eta haragia, baina horiekin *ex duzue ukhanen* bakerik.

Orduz geroztik Espainian **bada** abundanteia, baina **falta dute** bakea.

2. **Dotorra bere burubaren kontra** (Frantxon Belzaigi; W. Webster, *Ipuinak*, 1877; X. Arbelbide, *Ipuinak - II, EEE, Klasikoak*, 1993, 101)

Baziren asko munduan bezala, aita seme batzuek. Fortuna *bazuten*. Aitak **egorri zuen** semea dotorre iterat. Bere estudioak *finitu* eta **ethorri zen** etxerat. Bafian *ex zen* herrietan *ibiltzen*. Aita hura konbidatua **izan zen** bazkari handi baterat eta arrain *jaten ari zelarik* iresten du ezhur bat eta han **zagoen** ito ordian.

Badoazi bazter guzieta dotorketarat. *Heldu dire* bafian nihork *ex du* bonurrik hari **kentzeko** ezhur hura. Bethi jaun harek **iten zuen** keinu bat eskuz, **erran nahi beitzuen** ekhar **arazteko** haren semea. Noizpeit *konprenitu zuten*. *Ehortzen denian*, **egortzen du** mundu guzia kanporat. **Erraten dio** bere aitari:

— Zer aita! *Ex dakizu* bada nik **ex dakitala sendatzen** ardi pikorrekin bertzerik nere eriak?

Aita hura **ematen da** hala irriz non ezhur hura *botatzen du*. Mundu guzia **harritzen da**, zer jaun habilla eta jakifia **zen** hura. Eta gehoztik haren fama hala **gan zen** non mundu guziak hura **nahi beitzuen** miriku; eta **sendatzen zituen** geroztik bere eriak ardi pikorrak irifian *pasatu* eta hekiek **emanez** erieri.

Lehen aberatsa *beitzen*, pusanta *iñ zen*. Ungi **bizi izan bazen** ungi *hil zen*.

3. Amerika'ra diruak irabazten (I. Gallastegi; A. Arejita, *Joskera: Esaldi Bakuna. Ikasgaiak eta Ariketak*, 1, Labayru, Bilbo, 1989, 203)

Gizon bat joan zan Amerika'ra diruak irabazten. Eta topa zeuen lagun bat bera(re)na. Eta egon ziran *despeditu ezinik*. Eta lagunak esan eutson emoten eutso(za)la iru kontseju. Lelengo esan eutson ba: inoren gauzetan ez sartzeko; bigarrena: atajutik ez joateko; irugarrena: jakin barik gauzea ez berotuteko. *Despeditu zirean* eta joan zan etxe batera eskatuten ostatua.

Topa zeuen gizon argal bat eta *ikaratu egin zan* eta urten zeuenean etxe aretatik *segidu egin eutson* eta *preguntau egin eutson* zer deritzen bera(re)n bizimoduari. Eta lenengoz akorda zan Amerika'ko laguna-gaz, *emon eutson* kontsejuagaz, eta *erantzun eutson*: -*Ex naz* inoren gauzetan ni sartzean. Orduan gizon argalak kontestau eutson: -Eskerrik asko. Gero joan zan aurrera bera(re)n etxerantza eta topa zeuen atajoa da *pentsau zeuen* andik *joatea*, ikusi zeuelako gizon bat andik *joaten* astoaren ganean. Baina geiago *pentsa(d)u*-ta joan zan beraren bidean. Ailega zanean atajora *topa zeuen* medikoa ta abadea. Egin eutsoean *segidu* eta *topa zeudean* ia ilean astoaren ganean *joan zan* gizona. An akorda zan bera(re)n lagunaren bigarren kontsejuagaz.

4. Astoa, txakurra, katua eta oillarra («Gernika inguruetakoko euskera, Nabarniz-en ahoz batutako ipuiña, Josune Unamunok Digna Arriolari jasorikoa»; *Idazkera ariketak*, J.G. Gorostiza, Udako Euskal Ikastaroa, Derio, Labayru, 1981, 89-91).

Egon san etze baten asto bat, asto sarra, esetako be balijo estaben astue. Da esateben: «Asto sarra, *estau* esetako be *balijjo*-ta, *ill ein bikou*, ia laster negue be *badator* da, *ill* de kitxu, *kendu* enbarasutik. *Jan* se besterik *esteu eitxen*-da.»


Astuek *entzun'ban* ori. Da esaeban: «Neu *ill* seuck? Es ba, *eskapau eimgot* ba!». Da *eskapau'ban* andik. Jun sen, *jun* de *jun*, da *topau'ban* txakurre. Txakurrek *esan'tzon*: «Nora *soies?*» Da bestiek: «Ba, *estotela balijjo* ta, etzien laster *ilteko* kontue *esan dabe* ta *eskapeu ein dot* etzetik».

«Neu be olantxik *noie*» -*esan'tzon* txakurrek-. «Bueno, ba aitxik *goisan* bijjok alkarras. Neu be sarra nasela ta, *estotela* saunkerik be *eitxen* da ... *banoie*».

Badoies bijjek alkarras. *Jun* de *jun*, *topeu* dabe katue. Da *esan'tzen* katueri: «Ser ba? suri be se *paseten jjatzu* ba?»

Ba, ni be ia oin sagurik be *estotela* atrapetan etzien, da *esa'este* ba, sarra *nasela*-ta; beti eurrin nabille eskobiegas *josen*, da *eskapeu dot!*». «Bueno, ba geu be olantxik *goies*, *etorri* geuas». Junteu sien iru. Jun sien aurrerau ta *topeu* eben oillar bat, oillarra kukurrukuke, ta *esan'ban*: «Laster Gabonak be *badiesela*-ta, ia *estekola* serik, eta *ill ein* bi' *nabela* neu *esa'este* ta ...». Ba *planteu* sien, astoa asprijen, astun ganien txakurre, txakurren ganien katue, ta katuen ganien oillarra. Jun sien da gero gaba *aillegau* san, da *illundu* san da nora jun bes.

Ta ikusi'ben urrunien antxe argitxu bet *dauela*. Da *esa'ben* «Araxe *jun biou* gaba *pasetako*, araxe etzera; etzie edo ia ser *dauen ikusi biou* antxe-ta». *Jun sien*, jo'eben atie, da argi orregas *egon sien* lapurrek, lapurretan *einde*, euren diruek *kontetan*. Da atie *jo ebenien pentzau* eben *badoiasela* goardiasebillak-edo curek *topetan*, da *eskatierri emon'tzen*; da bestiek, astue-ta, *sartu sien* barrure, ta *planteu sien* astue kortan, txakurre ate ondun, katue suen ondortxuen, da oillarra be kortan. *Planteu sien* lo *eitxen*, epeletan *dauela*-ta, posik! Da lapurrek *jun sien* atzera, *ikusten* ia se *ixen dan* arek *ikeratu'xcusena*. Da bat *sartu* san barrure illunien, argirik *ixotu* barik, da *jun san* su ondora, da *sueri erein'tzonien pentseu'ban* txingerra *dala*, ta *ixen* san katuen begijje. Da katuek erpeka *ekin'tzon*, purrustada batzuk *ein'tzosan*; asi san lapurre eskapan, atera *juten*, da atien *asi jjakon* txakurre saunkaka; *asi san* kortatik *eskapetakun*, da kortan *aste'jjako*



astue ostikoka, da gero ureteébanien kanpora aren posa. Ta gero ondiño kukurruku *eitte'zon* oillarrak. Jun san bestiegana ta esan'tzon: «Ser *ikusi dot* ba! Nik *etxakijjet* ser *ixen dan* a! Batak ainkeka, bestiek makilleka, bestiek ostikoka, nik esebe *etxoat ikusi* baia txarto *ibilli nok*, txarto be txarto. Ara *esi'leikek jun*».

Da gero axe *ixen san* eurentzako etzie, ta eurek *manejete'sien* antxe.

5. **Zugarramurdiko sorgiñak** («Jose Luis El Busto Etxegarai 12 urteko haurrak kontatua. Irunen sortua da baina zortzi urtez bizi izan da Urdazubín. Ama lesakarra du; aitak ez daki euskaraz.» In N. Alzola, *Euskaraz, Irunen barrena*, 1994, 20.)

Baziren sorgiñak Zugarramurdiñ. Ibiltzen ziren etxez-etxe galdetzen ya bazien eriak. Alletu zien etxe batera eta **galdetu zuten** ya bazien eriak. Etxekoak erranzioten bayetz, **bazutela** mutill bat emezortzi urtekoa. Ordun sorgiñak **erran zioten atratzeko** etxeko denak kanpora. Eta ordun **gelditu ziren** sorgiñak eriak barnian. Eriaren anaya yuan zen gottira baldimetan sorgiñak iten **baldinbazuten** gauza gaixtuak eriekin. Sorgiñak **lotu zioten** arpegi dena mokanesakin eta **erran zioten ez solas eiteko** sorgiñak **erran** bittartian. Ordun sorgin batek in zun zilo bat koltxoian eta **ateri zuten** saketikan musker bat eta **sartu**

zuten koltxoian barnian. Orduan itxi **zuten** koltxoian ziloa. Kendu zioten eriarri mokanesa eta erran zioten yende denari eriak ez zula bertze gauza musker bat **sartua** koltxoian eta muskerrak pozoina **bota-tzen zuela**. Orduan **etorri zen** gottitikan eriarren anaya eta **ixiltu zen**. Sorgiñak ordun **emanzioten** kontua eta eriarren anayak erran **zuen ez emateko** dirua zertaz berak **bota barzuela** tiro bat sorgiñikeri. Ordun sorgiñak **eskapatu ziren**.

6. Atxagarekin **OBABAKOAK**en itzulpenaz (elkarrizketa; Juan Garzia Garmendia, *Senex*, 9, 1990, 18-9).

— (JGG) Eta hori **ikusten da** adjetibazioan, nominalizazioetan ... lexikoaren maila guztietan ...

— (Atxaga) Eta horrek, nik **uste, badu** beste ondorio **niretzat oso garbia**, eta da hemen inon baino garrantzi gehiago **duela** komunitate literarioak, edo irakurle, idazle ... horien arteko harremanak. **Esan nahi dut**: behin Arestik **erabili bazuen** "bilau" hitza, adibidez, halako zehaztasun batekin, hurrengo idazleak **hartu** eta **erabili behar du** zehaztasun berdinarekin, eta zentzu berdinean, eta abar. Eta hor, nolabait, hogei urtetan, **lortuko genuke** finkapen bat ... Alegia, ni **hasten banaiz** "abandonar" horren inguruan "lagazio" eta halako gauzak **esaten**, nik bakarrik **erabiltzen badur**, inora **ez doa**. **Lortu beharra dago** halako —ez dakit ba nola esan— akordio bat, eta elkarrenak aintzat **hartzeko** konpromezu bat. Horren ondorioa da talde lana ikaragarria **behar dela**.

— Horrek **esan nahi du**, hala ere, berez hau nolabaiteko estrategia probisional bat **dela** ... eta **pentsatzen dut** mistoa ere **izan beharko duela**, (...)

— Dударik gabe. Nik **uste dut** hau **dela**, nolabait, pasarte moduko bat. Mende erdi bat **eduki dugu**, nire eritzirako, egokitzeko, beste kulturetako hizkuntzen maila hori hartzeko, berrogeitamar urte, gutxi gora-behera. Hori da gure Damaskoko bidea, bide hori **egin beharra dago** nola edo hala, eta, ondo **egiten bada**, gero **ez da** prolemarik **egongo**. Nik **uste dut** prolcma hau soluzio xamurrekoa **dela**, **ez da** hain zaila hau **soluzionatzea**, baina **behar du** komunitate bat, eta **behar du** kontzientzia bat, oso —bide batez **esana**— gutxi **ikusten dena**. Zera **gertatzen ari zaigu**: hau gure arteko itzultzaile, idazle eta abarren arteko entente bat **izango balitz**, nik **uste dut** horrek oso ondo **funtzionatuko lukeela**. Baina idazle eta itzultzaileen artean joera dextente **daude** euskararen aldetik, igoal bost edo sei joera hizkuntzari buruz. Elkarri **hartzen badiogu** beretik ... hor guk **sortuko genuke** entente bat. Baina guk, gizarte guztietan bezala, oso pisu gutxi **dugu**. Zeren pisu gehiena **dutenak dira** —gaizki esanda— gazte muturzikin batzuk, karrera batzuk erdizka, titulu errax bat **lortu**, eta hortxe mass-medictan **daudenak**. Eta euskara espantagarri bat **erabiltzen duen jendea** ... jeneralean behintzat. Hitzak lanean **jartzeko**, **egin beharra dago** halako planifikazio errusiar baten arauera. Ba ... kinkenioz, ezta? Nik hala **uste dut**.

(...) - (JGG) Jarri duzu adibide bat oso modernoa **den** hizkera batena; ...

7. Axular, *Gero* (1643) (Jakín, Villasante, 1976, 95)

Likurgok, erakusteko Lazedemoniakoei, zein indar handia **zuen** usantzak, **hartu zituen** bi xakur gazte, **bi orkume ama batenak**, eta sabelaldi batetakoak: eta hetarik bata, **usatu zuen** bethi ere etxean barrena, kuzinako eta sukhaldeko eltze-plateren artean: eta **berriz bertzea hazi zuen** kanpoan ihiziko orekin batean. Eta gero **handitu zirenean eraman zituen** biak treilla bateran Lazedemoniako iende heken aitzinera eta han **laxatu** eta **largatu zituen**, eta **largatzearekin** batean, **egotzi zerauzten** bere aitzinera, erbi bat eta haragi puska bat. Eta ihizian usatua, **abiatu zen** berehala erbiaren ondotik, eta **berriz bertzea**, kuzinan hazia, **lothu zeikan** haragi puskari. Eta gero erran **zerauen**: **Ikhuzazue**, iaunak, zer **egiten duen** usantzak, zein indar handia **duen** hazkuntzak, lehenbiziko segientzak, eta ohikundeak: nola or hautarik bata, bere hazkuntzaren arauaz, **lothu zaikan** haragiari, eta **berriz bertzea**, **iarraiki zaikan** ihiziari.

8. J.A. Mogel, *Peru Abarka* (1802) (1881, Gerediaga, 1981, 92-3)

— (Peru) ... Ipiñi gura zaitut gauza ascoren jaquitun echian *sartu* orduco. Daucat Jangoicuak *emonda* emazte otzan, baquetsu, euli bati bere gachic *eguingo ez leusquiona*. Azten ditu umiac lotsa onian, *mancau* baga, ondo *esanaz*, ta Jangoicuaren bildurra *iracatsijaz*. ... Daucadaz seme bi ta beste aimbeste alaba. Gari ta artuac *daucadaz giltz* baga gambara zabalían; bada *daucaguzan* otseinac bere, *aci ditugu* gueure umiac *baguenduz* leguez, alcar *maite dogula*. ... Orregaitño Jangoicuac *emoten deuscu* gaucia ugari; topin ona beti *izaten da*; *ilten dogu* lauñoeco guizena, *idi lodi* cecin ederra *dabena*. Euren demoretan *izaten da jan al* baño gueijago castaña ta sagar. Urte guztian, *esateraco*, *daukagu* ezña ta *aurre-ratuten ditugu* dirubac *lagunduteco* guero umiai, *aututen dabeen* vicieran. *Dacustaz* nic iru ta lau echa-guntzaren jaube *dirianac*, *zoorrez beteta*, bururic *jaso ecinda*, gosia *emote deutseela* euren umc ta oguitucuai.

9. J.B. Aguirre, *Eracusaldiac*, III (1808) (1850, Hordago, 1978, 330-1)

José, Jacob Patriarcaren seme guztiz eder, eta maitea, bere senideen embidiac *saldu zuan*. Erosi zuen aurrena Ismaelita mercatarí batzuec, eta guero Egiptoco Erregueren egercituén *buru*, ta *aguintari* Futibar *ceritzanac*. Eguiten cituan Josec bere nagusiaren agiunduac leyalqui, ta bere contura *utzi ciozqueen* gauza gucia(c), irteten citzaizcan nagusiác *nai zuan* bezala. Ecusiric onec Joseren leyaltasuna, ta doay ederrac, bere contura eman *ciozcan* echea, ta gauza guztia; ta bereala *ugaritu ciran* Joseren escuetan. Onela vici zan José bere nagusiaren borondatearen, eta viotzaren jabe, ta bere Jaun jaungoicoac *beguiratzen* ciola gauza guztietan Aita onaren beguiaquin. Baña *prestatu cion* etsayac lazo icaragarri bat, Joseren icen ona, ta anima *galerazteco* chit perill andicoa, eta limuria. *Jarri citzayon* egun batean echeco andrea beguira, ta Joseren edertasunarequin *lilluraturic*, *equin cion bear ez diran* gaucetaraco bidea *ematen*. Equin cion ez beñi bacaric, baicic ascotan, baña beti alferric. Egun batean *sartzen da* José echera, ta *asitzen da* bere bacarrean lanen bat *eguiten*. *Sartzen zayo* echeco andre ez garbia, ta caparen ercetic *elduta* equiten dio José *tentatzeari*. Cer *equin zuan* onec? Cer? *utziric* capa irtén zan echetic.

10. J.P. Duvoisin, *Laborantzako liburua* (1858) (EEE, 1986, 90)

AITAK. — (...) Askotan bero gaitz batek *iraganarazten du* kenka gaixtoan *den* belharra eta bere baliotik hainitz *khentzen dio*. Belharrak *nahi du* ongi *idortu*. *Idortzean*, ibiliago eta hobego.

Iguzki bero batek *harrapatzen badu* belharra, *iduri du* batzuetan idorra, hala *ez delarik* oraino. *Sartzen bada* barnerat itxurak *enganaturik*, belhartegian *bihurtzen da*, berotasuna *hartzen du* eta gozoa *gal-tzen*. Zenbait aldiz ere *ikhusi izatu da su hartzen* eta etxeak *erretzen*.

Behinere *gerthatzen* bazare belharra hezeegirik *sartzera* uri beldurrez edo bertzela, xuhurra *baduzu*, *ez duzu* hala *utziko*; *atherako duzu* aphur bat ondoko egunetan. Artha horren eskasez hainitz *gal dezakezu*.

SEMEAK. — Ongi *hartzen dut* hori; *ikhusten dut ez dela* zuhurtzia barnean *idukitzea* idorra *ez den* belharra, zeren *hutsalduko* baita segurki eta etxea erreko baitu menturaz. Sinhesten ere dut asko etxe, nola *ez dakitelarik erre* direnak, belhar berotutik *egin izan direla*. Bainan aro onik ez badu egiten belharra kanporat *emateko*, zer *egin?*

AITAK. — *Begiraturiko* diozu maiz eta *ohartzen zarenean berotzen hari dela*, barnean berean *harrotuko duzu* arras *hoztu den* arteo. Hori bera aski *da*.

11. Erriko jendeentzat osasun legeak medikantzako argibideak (Euskalerritarrai eskeñiak Debako eta Itziarko mediku jaun D. Martin Aranburu eta D. Manuel Bago Agirrek ipiñiak. Bergaran: J.F. Lopez-

en moldiztegia 1899garren urtean; I. Arrigain, EEE, Klasikoak, 1994, 16-19)....; eta azkenik **esango ditugu** itz batzuek bukaera **emateko** orain eskuarte *dakargun* oni, euskal-erriko jende eta arrazaren antzifako izaeraren eta bere itzkuntza eta usariyoen gañean, zeñak lenago *aitortu degun* bezela, **izan diran** denbora guztietan eta paraje guztietako jakintsuengandik txit izkiratuak eta begiramentu asko beren gañi *ipiñi azi izan dituztenak*.

Guztiak **aitortzen dute** euskaldunen jatorria *dala* txit antzifakoa, eta iberoak zeñak **izan ziran** Españiako lurreen aurrenengo *bizi izatera etorri ziran* jendeak, **gelditu ziral**a *bizi izaten* batzuek Ebroko erriyoz aruzko **aldean** gaur erdaldunen lurtzat **ezagutzen degun** artan eta besteak *esandako* erriyo ortzaz unuztik, ifiolaz ere zergatik **uste zuten** bertan eta mendi artean errazago kontu **egingo ziotela** beren libertadeari. Gu gaur *bizi geran* parajeetan **gelditu ziranak ez zituzten izan** ainfeste gora bera nola beren **beste anai Ebroz aruztik gelditu ziranak**, bada oek denbora *aurreratuaz joan zanean*, **izan ziran** menderatuak Cartagoko eta Erromatarren jendeak gandik, eta **galdu zituzten** beren usariyoak ere, **artuaz** kanpotar jende aek bertara *ekarri zituztenak*, eta gañera oek *itzegiten zuten* itzegite modu ura bera. Bañan *esan degun* bezela gure parajeetan **gelditu ziranak ez zituan** ifiork *menderatu izan*, eta **bizi izan ziran** beren mendi artean **gordeaz** libertadea, usariyoak, eta baita ere beren itzkuntza zeña **allegatu dan** gaurko egunean gure arteaño.

Esan degun jende aei **deitzen zioten** Karistioak, gaurko Arabarrak *daukaten* parajekoai; Barduluak, Gipuzkoatarrak *daukaguna zeukatenai*; Autrogoiak gure probintzi onetako leku batzuen eta Bizkaiko lurraen jabe *ziranai*; eta Baskoiak berriz, gaurko Naparroako lurreen Aragoiko mugetaraño *bizi ziranai*.

Euskaldunak *dira* bada gizon kondairale jakintsu eta errespetagarri askok *diotenez*, arako antzifako **jakintsu sonatu** Seneca *zeritzaion* arren denboretan gorderik **zeukatenak** Españiako lenengo *bizi lagun* edo iberoak *izendatzen ziran* aen beren itzkuntza, usariyoak, eta jantzi modu ura bera; eta au da argibiderik itxurazko eta egizkoena **adierazotzeko** gure euskal-itzkera **izan zala** Españiako lurreen aurreneko *itze-gin zan* itzkuntza. Euskera da bada kanpotar naziorik ifiortxo ere Españian *sartu baño len itze-gin zan* itzkera, eta onetatik **datorkigu guri esan al izatea** euskaldunak **ziral**a lendabizi Españiako lurreen *bizitu ziranak*, zeñaren jatorri garbia **gorde izan duten** gure paraje oetakoak **nastu gabe ezertan egon ziralako** kanpotik *etorri ziran* nazioekin, eta oek **menderatu ez zituztelako** gure guraso zarrak.

Gauza au onela *dala* eta egiazkoa *dala argitaratzen du ikusteak* gaurko egunean *ikusten degun* bezela, euskal erriko lurreen **ez dirala billatzen** eta ez eta ere **azaltzen** beste zenbait Españiako leku askotan bezela erromatar eta beste kanpotar nazioetako jendeak *egin eta utzi zituzten* eliza eta berak *adoratzen zituzten* Jaungoiko gezurrezko aen itxurarik, zeñak beñi ere *ez zituzten ezagutu* beren bizi lekuetan gure aurreko guraso zar aek; eta egia baldin bada ere Cartagoko agintari aundi eta gerrari sonatu Anibal *zeritzaion* arren mendean **ibilli izan ziral**a euskaldunak soldadu erromatarren kontra, ez da egi txikiagoa ibillera au **izan zala** bata besteekin egindako tratu batzuen bidez eta adiskide *berarekin ziralako*; alako moduan non erromatarren **agintari** Eszipion *zeritzaionak* igerririk beraren kontrarioetan *zijoazen* euskaldun jende aek *ziral*a medio **galtzen zitual**a berak atakerik geinak, **egin zuan** modua jende aek **bereganzteko** diruz edo beste al **zuan bezelako** bidez, eta au *egin zuan* bezin laister **ikusit zuan** ere andikan aurrera erraz asko **menderatu zitual**a Anibalen soldaduak **esan duten bezela utzi dituzten** liburu zarretan denbora antzifako aetako gizon kondairaleak nola **diran** Estrabon, Plinio, eta Silio Italiko *izendatzen ziran* aek.

Gizon jakintsu oek berak **itzegiten dutenean** zer nolakoak **ziran** euskaldun aen izaera moduak **esaten dute ziral**a alperkeriaren etsaiak, nekea *zer zan ez zekitenak*, jan eranean kontuzkoak, gorputzeko indarraren gordetzalleak, arrokeriarik gabekoak, beren libertadearen maiteak, eta au *ez galtzeagatik* edozein gauza egitera **jarriko ziranak**, illtzeak *bildurtzen ez zituanak*, beren naitasunetan leialak, kontrariyo bildulgarriak, biyotz onekoak, azkarrak eta indartsuak, dantzari ariñak, (onetan **asitzen ziran**ean zeukaten iru zuloko txistu bat **joaz** zeña **dan** gure gaurko danboliña); *ibilzen nekatzen ez ziranak*, atakeetan



korajetsuak, eta azkenik beste inõr ez bezelakoak beren kontrarioak *uste* gabe, edozein lekutan *sartu* eta aek *arrapatzeko*.

Zenbaterafio gorde ditugun gaurko egunean gure lenagoko guraso zar aen doai eder aetatik, *ez dago-kigu* guri emen *esatea*; bañan alaz guziaz ere *ez degu konturatu* gabe *utziko*, oraindik gure denboretan ere euskaldunak beste inõngo jendeak ez bezela *dauzkatela* beren gain izate modu jakin batzuek, eta bai eta ere paraje askotan lenagoko gure guraso zar aen itzkuntza ura bera.

Euskal-erriko jendea da elizkoia, agintariari *bear dan* errespetoaren gordetzallea, leiala, eta bai eta ere setotsua, zerbait buruan jarkitzen zaionean naiz eta ez beti arrazoizko gauza *izan*. Beraren usariyoak *dira* ere biziro berakikoak, eta oen ondasuna *argitaratzen* du ongi egunero *ikusten degun* gauza batek zeña *dan*, iru probintzi oetan eginkizunik gutxiena *edukitzen dutela* beti justiziko gizonak beren lanetan, eta bai eta ere gure nagusitza edo aginpidea *daukatenak*, beti *azaltzen dituztela* zuzen eta garbi berai *dagoz-kioten* kontu eta artu emanak.

Beste gañerakoan beti *dauzka* euskaldun jendeak berekin antzifnako guraso zarren izaera moduak; eta ala, pelota jokua, balanketa jokua, aizkora jokua, belar ebaite jokua, saltaka jokua, txalupa jokua, eta bai eta ere azkenik bertako dantzan *egitea*, guziak *adierazotzen dute dirala* jende indartsu eta pizkorraen *usariyoak*, jakin *izan ditugunak* gordetzen gauza gogoragarritzat bezela gure aurreko guraso eta aitona zar aetatik.

BIBLIOGRAFIA AIPATUA

- ALTUBE, S. (1919) *De sintaxis euskérica*. Donostia, 1920.
- , (1929) *Erderismos*. Euskera, 1929; Euskaltzaindia, 1975 (A. Villasanteren hitzaurrea).
- , (1932) *El acento vasco en la prosa y en el verso*. Euskera 1932.
- AZKUE, R.M. (1891) *Euskal-Izkindea. Gramática Eúskara*. Bilbao, 1891.
- AZURMENDI, J. (1977) *Orixeren frasekera: ritmoa*. In *Zer dugu Orixeren alde*, Jakin, 1977, 325-345.
- BADDELEY, A.D. (1999) *Essentials of Human Memory*. Psychology Press, UK, 1999.
- BALOTA, D.A.; FLORES D'ARCAIS, G.B.; RAYNER, K. (eds.) (1990) *Comprehension Processes in Reading*. L. Erlbaum, Hillsdale, N.J., 1990.
- BOOMER, D.S. (1965) «Hesitation and grammatical encoding». *Language and Speech*, 8, 1965, 148-158.
- BOOMER, D.S. & DITTMAN, A.T. (1962) «Hesitation pauses and juncture pauses in speech». *Language and Speech*, 5, 1962, 215-20.
- BOOMER, D.S. & LAVER, J. (1968) «Slips of the tongue». *British Journal of Disorders of Communication*, 8, 1968, 2-12 (reprinted in Fromkin, V.A. (ed.), 1973, *Speech Errors as Linguistic Evidence*, Mouton, The Hague, 120-31; eta J. Laver, 1991, *The Gift of Speech*, Edinburgh Univ. Press, 1991, 23-35).
- CHAFE, W. (1994) *Discourse consciousness, and time: The flow and displacement of conscious experience in speaking and writing*. Chicago, The University of Chicago Press, 1994.
- CLARK, H. (1996) *Using language*. Cambridge Univ. Press, Cambridge, U.K.
- CLARK, H.H.; E.V. CLARK (1977) *Psychology and Language. An Introduction to psycholinguistics*. Harcourt Brace, New York, 1977.
- COLTHEART, M. (1987) *The Psychology of Reading. Attention and Performance XII*. L. Erlbaum, 1987.
- DE VEGA, M.; F. CUETOS (coord.) (1999) *Psicolingüística del español*. Trotta, Madrid, 1999.
- DITTMAN A.T.; LLEWELLYN, L.G. (1967) «The phonemic clause as a unit of speech decoding». *Journal of Personality and Social Psychology*, 6, 1967, 341-9.
- EUSKALTZAINDIA (1987) «Hitz ordena». *Euskal Gramatika lehen urratsak - 1 (Eraskina)*, 19-46.
- EYSENCK, M.W.; KEANE, M.T. (1995) *Cognitive Psychology*. Psychology Press.
- FAYOL, M. (et al.) (1992) *Psychologie cognitive de la lecture*. PUF, Paris, 1992.
- GARRET, M.F. (1980) «Levels of processing in sentence production». In B. Butterworth (ed.), *Language production* (vol. I), London, Academic Press, 1980.

- , (1990) «Sentence Processing». In Osherson, D.N. eta Lasnik, H.(eds.), 1990, *Language: an invitation to cognitive science*, Vol. 1, Cambridge. Massachusetts, MIT Press.
- , (1992a) «The Structure of Language Processing: Neuropsychological Evidence». In Gazzaniga (ed.) *Cognitive Neuroscience*, 881-899.
- , (1992b) «Errors and their Relevance for Models of Language Production». In G. Blanken (et al.) (eds.) *Linguistic Disorders and Pathologies*, Walter de Gruyter, 1993, 72-92.
- GATHERCOLE, S.E.; A.D. BADDELEY (1993) *Working Memory and Language*. L. Erlbaum, 1995.
- GERNSBACHER, M.A. (ed.) (1994) *Handbook of Psycholinguistics*. Academic Press, 1994.
- HABERLANDT, K. (1997) *Cognitive Psychology*. Allyn and Bacon (1st ed. 1994).
- HALLIDAY, M.A.K., (1967) «Notes on transitivity and theme in English», II, *Journal of Linguistics*, 3, 1967, 199-244.
- HIDALGO, V. (1991) *Altuberen azterketan*. (Lan argitaragabea, doktoretza tesian aurkeztua).
- , (1993) *Hitzen ordena euskaraz. Euskal gramatikalarien testigantza: iritziak eta, praktika idatziak*. (Lan argitaragabea, doktoretza tesian aurkeztua).
- , (1994a) «Euskal joskeraren mito kaltegarriak (I). Nola idatzi euskaraz modu arin, ulergarri eta aberats batean.» *Hizpide*, 35, 1996, 39-51.
- , (1994b) «Euskararen hitz ordena librea. Euskal joskeraren mito kaltegarriak (II)» *Hizpide*, 36, 1996, 21-27.
- , (1994c) «Aditza maiz euskaraz esaldi hasieran. Euskal joskeraren mito kaltegarriak (III)» *Hizpide* 37, 1996, 23-31.
- , (1994d) *Hitz ordenaren estatistikak euskaraz*. (Lan argitaragabea, doktoretza tesian aurkeztua).
- , (1994e) «Zenbait ohar R.P.G. de Rijk-en “Is basque an S.O.V. language?” lanaren inguruan». In *Hitz ordenaren estatistikak euskaraz*, lehen atala (Lan argitaragabea, doktoretza tesirako prestatua).
- , (1995) «Ohar estatistiko garrantzitsuak euskararen hitz ordenaren inguru. Euskara, SVO?». *FLV*, 70, 1995, 401-420.
- , (1996) «Hurbiltze bat euskal hitz ordenaren tradizioari». *FLV*, 71, 1996, 21-43.
- , J. GARZIA (1997) «Hidalgo vs Altube». *El Correo*, Territorios, 10, 1997-XI-5.
- , J. GARZIA (1998) «Ikastea pentsatzen euskaraz». In *Administrazioa euskaraz*, 19, 1998ko urtarrila, 19.
- , (1998) «Baina, zer da euskal joskera?». In *Administrazioa euskaraz*, 21, 1998ko uztaila, 18-9.

- ___, (1999a) «Hitzen ordena eta esaldiaren egitura informatiboa. Gogoeta historiko zenbaiten berri labor. Antzinatea». *FLV* 82, 1999, 431-457.
- ___, (1999b) «Axular euskal hitzen ordenaren historian». *Lapurdum IV*, Numéro Spécial 1, *Les lettres basques au temps d'Axular (1600-1650). Euskal literatura Axularren aroan. Actes du colloque de Bayonne (12-13 avril 1999)*, 1999, 143-170.
- ___, (1999c) «Hitz ordenaren estatistikak euskaraz». *Anuario del Seminario Julio de Urquijo*, 1999-2, 393-451.
- ___, (2000a) «»Galdegai» bat baino gehiago erakutsi ohi duten esaldiez. Hitzen ordena esaldian: bereizi beharreko eztabaida arlo bi. Galdegaiaren inguruko ikuspegi berri bila (I)». *Uztaro* 33, 2000, 43-85.
- ___, (2000b) «Informazio unitate baten tamainako esaldi laburraren ordenamendu eta informazio-egituraren aukerak eta eraginak. Hitzen ordena esaldian: bereizi beharreko eztabaida arlo bi. Galdegaiaren inguruko ikuspegi berri bila (II)». *Uztaro* 34, 2000, 39-85.
- ___, (2000c) «Gogoetak' hitzen ordena eta esaldien egitura informatiboaz' prosodiaren laguntzaz. Begiratu bat nork bere buruaren aurkezpen esaldiei.». *Lapurdum*, V, 2000, 113-166.
- ___, (2002a) «Erlatibo hautsiak. Izen ardatzaren eskuin hedatzen diren erlatiboak euskaraz (I)». *FLV* 89, 27-80.
- ___, (2002b, bidalia) «-(e)n... erlatibo aposatuak. Izen ardatzaren eskuin hedatzen diren erlatiboak euskaraz (II)».
- ___, (2002c, prestatzen) «ZEIN erlatiboak. Izen ardatzaren eskuin hedatzen diren erlatiboak euskaraz (III)».
- ___, (2002d, prestatzen) «Izen multzo soilaren ondoretiko erlatiboak. Izen ardatzaren eskuin hedatzen diren erlatiboak euskaraz (IV)».
- ___, (2002e, prestatzen) «Izen ardatzaren eskuin hedatzen diren erlatiboak euskaraz. Ikuspegi orokorra (eta V)».
- KALTZAKORTA, M. (1997) «Definizioak ematen». In *Administrazioa euskaraz*, 16, 1997, 9.
- LAVIER, J. (1970) «The production of speech». I. J. Lyons (ed.), *New Horizons in Linguistics*. Penguin, New York, 1970; *Nuevos horizontes de la lingüística*, Alianza, Madrid, 1975, 55-77.
- LEVELT, W.J. (1989) *Speaking: From Intention to Articulation*. Cambridge, Mass., MIT Press, 1989.
- MEDIN, D.L.; ROSS, B.H. (1997) *Cognitive Psychology*. Harcourt Brace Coll. Publ. (1st ed. 1992).
- MEYER, A.S. (1996) «Lexical Access in Phrase and Sentence Production: results from Picture-Word Interference Experiments». *Journal of memory and Language*, 35, 1996, 477-496.
- MITXELENA, L. (1953) *Arnaut Oihenart*. BRSVAP, 1953, 445-463 orr. Bereziki, 459-462 orr. (Orain *Mitxelenaren Euskal Idazlan Guztiak -MEIG-* bilduman.)

- MOKOROA, J. (1990) *Ortik eta hemendik. Repertorio de locuciones del habla popular vasca*. Labayru, Etor, Eusko Jaurlaritza, 1990. (2 liburuki).
- RAYNER, K.; A. POLLATSEK (1989) *The Psychology of Reading*. Prentice-Hall, New Jersey, 1989.
- SINGER, M. (1990) *Psychologie of Language. An introduction to Sentence and Discourse Processes*. L. Erlbaum Ass. Publishers, Hillsdale, New Jersey, 1990.
- STERNBERG, R.J. (1996) *Cognitive Psychology*. Harcourt Brace, Fort Worth ..., 1996.
- VILLASANTE, L. (1956) *Comunicación del P. Villasante sobre la réplica del Sr. Altube al Sr. Michelena acerca de sintaxis vasca. - Estudios de sintaxis vasca.*, Euskera, 1956, 14-18 orr.
- ___, (1966) (*Hitzaurrea*). In *Garoa* (Txomin Agirre), EFA (berrargitalpena), 3-16 orr.
- ___, (1970) *Sintaxis*. In *Hacia la Lengua Literaria Común*. EFA, Serie Eleizalde (2. arg.), 89-93 orr.
- ___, (1974) *Euskara idatziaren joskera. Euskal idazle zaharren gaitzestea XX. mendean*. FLV, 1974, 325-342 orr.
- ___, (1975) *Hitzaurre gisa*. In *Erderismos* (S. Altube), Euskaltzaindia (berrargitalpena), V-XII orr.
- ___, (1976) *Sintaxis de la oración compuesta*. EFA. Serie Eleizalde. Bereziki, *Orden entre la oración principal y la subordinada, eta Orden de colocación entre las subordinadas de un mismo periodo*, 58-60 orr.
- ___, (1979) *Historia de la literatura vasca* (2. arg.). Aranzazu. (Autore desberdinen azalpenetan barreiatutako iruzkinak, bereziki Azkue, Altube eta XX. mendeko hegoaldekoen artean).
- ___, (1980) *Sintaxis de la oración simple*. EFA. Serie Eleizalde. Bereziki, *Ordenación de los elementos en la frase vasca atala*, 227-260 orr.
- ___, (1982) *Sarrera*. In *Kredo edo sinhesten dut esplikatua* (Lapeyre). Euskaltzaindia (berrargitalpena), 5-27 orr.
- ___, (1988) *Hitzaurrea*. In *Laisibi* (Azkue), Labayru (berrargitalpena), IX-XIV orr.
- ___, (1988) *Prosazko tradizio sendo bat osatu beharra*. In *Euskararen auziaz*, EFA, Serie Eleizalde, 141-154 orr.
- ___, (1989) *Aita Ubillos-en "Christau doctriñ berri-ecarlea"*. *Liburu honen berezitasun batzuez oharrak*, Euskera, XXXIV, 1989, 517-531 orr.
- ZAGAR, D. (1992) «L'approche cognitive de la lecture: de l'accès au lexique au calcul syntaxique». In FAYOL, M. (et al.), *Psychologie cognitive de la lecture*. PUF, 1992, Paris, 15-72.
- ZUBIMENDI J.R.; ESNAL, P. (1993) «Joskera». In *Idazkera-liburua*, Eusko-Jaurlaritza, 1993, 133-235.